DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Euskara

Donostiako Euskararen Plan Orokorra 2020-2024

(Behin behineko dokumentua)

Donostian, 2020ko maiatza

AURKIBIDEA

1. SARRERA....3
2. METODOLOGIA ETA PROZESUA....4
3. AGERTOKIA....5
4. DIAGNOSTIKOA: DATU KUANTITATIBO OROKORRAK....9
5. BALORAZIO KUALITATIBOA ESPARRUKA....26
6. ETA HEMENDIK AURRERA, ZER?....40
7. EUSKARAREN PLAN OROKORRA (2020-2024)....42
   7.1 MISIOA....42
   7.2 PRINTZIPIO OROKORRAK....42
8. HELBURU ESTRATEGIKOAK: NONDIK NORAKOAK....44
   8.1 ESPARRUKA HELBURUAK ETA EKINTZAK....46
9. PLANAREN JARRAIPENA....61
   9.1 ADIERAZLE PANELA....

1. SARRERA

Dokumentu honek 2020-2024 epealdian Donostiako Udalaren hizkuntza plangintzan gidari izango den Donostiako Euskararen Plan Orokorra jasotzen du. Plana, egun Donostiak bizi duen errealitate soziolinguistiko eta soziodemografikoa oinarri hartuta gauzatu da eta hirian garrantzitsuak izan daitezkeen aldaketak irudikatuz formulatu dira euskararen erabileran eragiten jarraitzeko helburuak eta neurriak.

Aurreko Plan Orokorrari jarraipena eman zaio, eta datozen 5 urtetakoa egiteko Donostiako Udaleko Euskararen Plan Orokorrean eragile nagusiak izan direnen parte hartzea bilatu da. Horrela, Donostiako Udalaren nahia ez ezik, Donostiako eragileena, auzoetako batzordeetako kideena, Euskararen Kontseilu Sektorialeko kideena eta prozesuan parte hartu duten norbanakoena ere jasotzen da.

Beraz, honakoak izan dira dokumentu hau egiteko urratsak:

- 2015-2019 epealdiko Donostiako Euskararen Plan Orokorraren balorazio kualitatiboa egitea.
- Sektore desberdinetako eragileekin balorazioa osatzea eta aurrera begirako ildo orokorrak adostea.
- Euskararen Kontseilu Sektorialaren balorazioa eta aurrera begirako erronkak identifikatzea eta adostea.
- Donostiako gizarte-bizitzan gakoak diren esparruetatik informazio estrategikoa jasotzea hirian esanguratsuak izaten ari diren alderdiak eta aldaketak identifikatzeko: Donostia Turismoko eta Donostia Estrategia bulegoko arduradunen eskutik.
- Hainbat arlotako adituekin txosten honetan jasotzen direnak kontrastatzea, baita prozesuaren hasieran parte hartu duten talde eta kideekin ere, eta webaren bitartez txostena herritarren eskura jartzea nahi duenak ekarpenak egin edo iritzia eman dezan.
- Tokiko Gobernu Batzarrak onartzea.

Plan Orokor honen diseinuaren azken urratsetan gaudela, COVID-19ak eragindako pandemia bizitzen ari gara eta agertoki berri eta ezezagun batean kokatu gaitu; ziurgabetasun eta zalantzaz betetako agertokian, alegia. Mundu globalean ez ezik, Donostiako gizarte-bizitzan eragingo dute COVID-19aren ondorioek, ekonomian, ohituretan, gizarte estiloan… Pandemiak ataka berri baten aurrean jarri gaitu eta epe luzera begirako norabidea ondo kokatzea zaila egiten zaigu memento honetan, hori dela eta, txosten honetan jasotako proposamenak eta gogoetak, agian beste begirada batetik berritu eta berrasmatu beharko ditugu epe laburrean. Datorkiguna irudikatzen saiatu gara, *Eta, hemendik aurrera zer*? izeneko atalean, eta batetik eta bestetik jasotako hausnarketak bildu ditugu bertan, betiere kontuan izanik inork ez dakiela esaten ziurtasunez gure gizartean zer gertatuko den eta nolakoak izango garen etorkizun hurbilean. Gogoetarako baliagarri izan dadila, beraz!

Hori horrela izanik, txosten honetan jaso ditugu Plan Orokorraren diseinuan jarraitu den prozesuaren nondik norakoak, Donostiaren diagnostikoa eremu eta arlo batzuei dagokiona eta aurrera begirako estrategiak eta neurriak euskararen erabileran aurrera egiteko.

2. METODOLOGIA ETA PROZESUA

Aurreko Plan Orokorra diseinatzeko prozesu parte hartzailea jarri zen abian eta datu kuantitatibo zehatzak bildu ziren. Hori horrela izanik, 2020-2024 epealdiko Plan Orokorra aurreko epealdian zehaztutakoaren jarraipena izatea irudikatu denez, diagnostiko kualitatiboago batean oinarrituz ildo estrategikoak zehaztu dira. Azterketa kualitatiboa egiteko Plan Orokorrean eragile nagusi direnen parte hartzea gakoa izan da, eta sektore desberdinetako kideek parte hartu dute, hala nola: merkataritza eta ostalaritzako kideak, kultur-aniztasuneko udaleko eragile eta herritarrek, kirol arloko eragileek, politikariek eta auzoetako batzordeetako kideek. Horrez gain, euskaratik haragoko begirada ere nahi izan da jaso eta begirada horren berri jasotzeko elkarrizketak egin dira Turismo arloko arduradunekin eta Donostiako Estrategia Bulegoko arduradunarekin.

Nagusiki Donostiako Plan Orokor berrian gakoak diren arloetako kanpoko adituen iritzia jaso nahi izan da, honako arloetan zehazki: kultur-aniztasuna, turismoa eta euskalgintza.

Jarraian zehazten den irudian prozesua urratsez urrats:



Honako bi helburu nagusi zehaztu dira:

1. 2015-2019 epealdiko Donostiako Euskararen Plan Orokorraren balorazioa egitea.
2. 2020-2024 epealdirako plana diseinatzea: erronka nagusiak identifikatu, helburuak eta lehentasunak zehaztu eta ekintzak proposatu, baita horien jarraipenerako adierazleak ere.

Lanketa egiteko sortutako egitura, berriz, honakoa:

Koordinazio taldea: bere zeregin nagusia proiektuaren arrakastarako beharrezko informazioa ziurtatzea izan da, antolaketarekin zerikusia duten puntuak lotzea eta jarraipen orokorra egitea. Donostiako Euskara Zerbitzuko arduradun teknikoek eta Emuneko aholkulariek hartu dute parte.

Euskararen Kontseilu Sektoriala: balorazio kualitatiboa osatzeko eta aurrera begirako ildo estrategikoak zehazteko.

Talde Eragilea: Euskara Zerbitzuko teknikariek eta Emuneko teknikariek osatua eta hausnarketa estrategikoa egitea izan da talde honen eginkizun nagusia.

Lantaldeak: Hausnarketa estrategikoa osatzeko hiriko hainbat kolektiboren iritzia edo ikuspegia jaso da. Horretarako, dagoeneko indarrean dauden guneak aprobetxatu dira eta gune berriren bat ere sortu da.

- Lan-mahaiak: Merkataritza eta ostalaritza, Kirola eta Kultur eta jatorri aniztasuna.
- Donostiako auzoetako Euskara Batzordeak.
- Elkarrizketak: Donostiako Estrategia bulegoko arduraduna, Donostia Turismoko teknikaria eta arduraduna
- Adituak: kultur aniztasuna, turismoa eta euskalgintza munduan egungo joerak ezagutzen dituzten eragileak, plan orokor berrian pisua izango dutela aurreikusten diren arloko ekintzak eta neurriak kontrastatzeko.

3. AGERTOKIA

Prozesuari buruzko lerroetan aipatu bezala, euskaratik haragoko begirada ekarri da Plan Orokor honetara, hobeto kokatzeko datozen 5 urteetarako Euskararen Plan Orokorrak jasotzen dituen helburuak eta neurriak. Beraz, jarraian agertzen diren lerroetan Donostiako Estrategia Bulegoak 2030. urtera begira egiten diharduen Plan Estrategikoaren diagnostiko fasetik jaso dira Donostiako gizarte-errealitatean eragina izan dezaketen aldaketak. Euskararen Plan Orokorraren agertokia zein izan daitekeen irudikatu nahi izan da horrela.

Hori horrela, Plan Estrategikoaren diagnostikoa biltzen duen dokumentuan mundu mailan etorkizuneko gizarte-errealitatean gakoak izango diren mugarriak jasotzen ditu, alde batetik, eta, bestetik, etorkizuneko joerak jasotzen dira. Dokumentu honetara ekarri dira horiek eta han zehazten denez mundu mailako joerak bi arlotan banatzen dira. Hemen azaltzen diren hainbat joera, agian, aldatu, areagotu edo apaldu daitezke COVID-19ak sortutako krisi globalaren eraginez:

1. MEGAJOERA NAGUSIAK
   - Aldaketa demografikoak
   - Aldaketa teknologikoak
   - Klima-aldaketa
   - Globalizazioa eta aldaketa geopolitikoak
2. JOERA SEKTORIALAK
   - Aldaketak gizartean eta bere balioetan
   - Ekonomia- eta enpresa-aldaketak
   - Aldaketak mugikortasunean eta garraioan
   - Aldaketak gobernamendu publikoan eta lidergo motetan
   - Aldaketak lurraldean eta hirian

Jarraian agertzen den taulan agertzen dira zehatzago joerak, "Diagnostiko Estrategikoa: Laburpena" izeneko dokumentutik jasoa:

LABURPEN-KOADROA

GIZARTEA	JOERAK
Zahartze prozesua	– Ongizate-sistemen gaineko goranzko presioa – Lanerako adinean pertsona gutxiago – Arriskuaren eta aldaketaren aurkakoa, berrikuntza – Zilarrezko ekonomia aukerak
Geldialdia/Klase ertainaren krisia	– Errenta-mailaren galera – "Kalteberatasun" soziala gehitzea – Laneko segurtasunik eza, zalantza ekonomikoa Ongizarte-sistemaren iraunkortasun zaila
Gizarte-desberdinkerien gorakada	– Baztertzeko edo marjinatzeko modu berriak Arrisku sozialak, ekonomikoak eta politikoak "Arrakala digitala"
Migrazioak	– Etorkin gehiago – Gizarte-zerbitzuen gaineko presioa – Erreakzio sozial negatiboen arriskua – Biztanleria aktiboa gehitzea

GIZARTEA	JOERAK
Genero-berdintasuna	– Genero-arrailaren murrizketa – Bizitza-estiloen eta estilo kulturalen aldaketak – Emakume gehiago biztanleria aktiboan
Banakakoaren lehentasuna kolektiboa denaren aurrean	– Aldaketa sozialak sakontzea – Ahultze sozialaren arriskua

EKONOMIA ETA ENPRESAK	JOERAK
Aldaketa teknologikoa	– Teknologia digitalak – Energiaren eta ingurumenaren teknologiak – Banakakoaren lehentasuna kolektiboa denaren aurrean eta manufaktura-teknologiak – Bioteknologiak
Elkarlaneko kontsumoa eta "platform economy"	– Zerbitzuen eskaera produktuen aurrean – Negozio-aukera berriak – Produktu pertsonalizatuak – Produktu arduratsuak, km 0, hurbileko merkataritza
Enpresen inguruguneareN konplexutasuna	– Egokitzeko premia – Negozio-ereduak berriz asmatzea – Malgutasuna

EKONOMIA ETA ENPRESAK	JOERAK
Sektore eta jarduera berriak	– Ingurumena eta Energia berriztagarriak – Elektromugikortasuna – Material aurreratuak – IKTBeak eta informazio-zerbitzuak

	– Teknologia altuko eta ikerketa eta garapeneko zerbitzuak – (I + G). – Bioteknologia – Kultura, kirolak eta entretenimendua; Gastronomia eta – turismoa
Okupazio eta enplegu-modu berriak, etengabeko prestakuntza	– Prestakuntza handiagoaren eskaera; etengabeko prestakuntza – Lan-harreman berriak eta enpresa-eredu berriak – Kualifikazioen eskaintzaren eta eskariaren arteko arraila Talentua erakartzea/talentuari eustea – Belaunaldi-dibertsitatea; adinaren kudeaketa
KLIMA ALDAKETA	JOERAK
Trantsizio energetikoa eta deskarbonizazioa	– Batez besteko tenperaturaren igoera – Aurkako fenomenoak (itsasoen maila,hondamendiak,…) – Biztanleriaren joan-etorriak – Baliabide naturalen gaineko presioa

MUGIKORTASUNA ETA GARRAIOA	JOERAK
Erabateko aldaketak eta iraunkortasuna	– Ibilgailu autonomoak – Automobil pribatuaren erabilera txikiagoa – Iraunkortasun-zerbitzuak – E-mugikortasuna – Intermodalitate irtenbideak – Beharrezko azpiegiturak

LURRALDEA ETA HIRIA	JOERAK
Hirien garrantzi gero eta handiagoa	– Hiriko biztanleria gehiago – Nortasun historikoa eta kulturala – Hiriko ikuspegia – Itunak eta hirien sareak
Hiri-oreka	– Auzoetako zerbitzuak eta hornidurak – Talde espezifikoekiko arreta
Hiria, Smart gunea (5.0 Gizartea)	– Informazioaren erabilera eraginkorra – Hiri-dimentsioen multzoa – Udal-administrazioen modernizazioa – Bizi-kalitaterako zerbitzuak

GOBERNANTZA	JOERAK
Gobernantza-eredu berriak	– Herritarren ahalduntzea – Erantzukizuna eta gardentasuna – Parte hartzeko bideak – Garapenerako lankidetza publiko-pribatuak – Maila anitzeko gobernantza – Geometria aldakorreko itunak – Konplexutasuna / zalantza kudeatzea

Euskararen erabilera estuki lotuta dago gizarte-errealitatean gertatzen edo gerta litezkeen eraldaketa prozesuei eta erabileran aurrera egiteko haien bultzada edo eragin dezaketen kaltea ahalik eta ondoen kudeatzea da Euskararen Plan Orokorreko eragileek eskuartean duten erronka.

Horregatik, Donostia 2030 Plan Estrategikoa diseinatzea helburu duen bulegoaren arduradunak eta Turismo bulegoko arduraduna eta teknikariak hiriari buruz egindako gogoetak jaso dira, hiriaren ezaugarriak eta etorkizunari begirakoak, betiere euskarari lotuta kontuan hartzekoak direnak. Horrela bada, haien eskutik jaso dira labur aipatu arloetako argazkia:

Estrategia 2030

- Aldaketa demografikoa dator, biztanleria zahartzen doa.
- Erretiratuak aktiboak izango dira, talde autonomoa eta dinamikoa. Euskararen ezagutzari dagokionez, ezagutza baxuena duen sektorea da
- Etorkinak izango dira sektore batzuetan kolektibo estrategikoa: zaintza munduan, ostalaritzan eta zerbitzuetan.
- Prozesu teknologikoak indarra hartuz joango dira.
- Kulturari dagokionez, Donostia abangoardian jarri beharra (beste era batera formulatu)
- Gastronomia sektore garrantzitsua da hirian: bertakoa galtzen ari da, kanpoko inbertsoreek ez dutelako sentsibilizaziorik bertakoarekiko, ez euskararekiko.
- Badira sektore interesgarriak, bultzada eman beharrekoak, berrikuntza eta zientzia alorrean.

Turismoa

- Lau ardatz dituzte oinarrian Turismo bulegoan: Jasangarritasuna, oreka, kalitatea eta identitatea. Identitatearen baitan euskara ere sartzen da.
- Egungo testuinguru politiko eta soziala erabat aldatu da azken urteetan eta ondorioz hirira datorren turistaren tipologia ere asko aldatu da. (Donostiara datozen turisten %40 Estatutik eta %60 beste lekuetatik dator)
- Turismoaren joerak aldatuz doaz, gero eta turista gehiagok bertako bizitza bizi nahi du.
- Gehiago balioesten dute bertako kultura ezagutzea, hiriaren nortasuna eta benetakotasuna bilatzen da. Ezaguna da “Love San Sebastian, live Donostia” leloa aipatu ideiaren adierazgarri eta baita itxialdian zehar abian jarri duten “Donostia hitzetan” ekimena ere.

4. DIAGNOSTIKOA: DATU KUANTITATIBO OROKORRAK

Egoeraren diagnostikoa egiteko datu kuantitatibo orokorrak jasotzen dira jarraian, esanguratsuenak izan daitezkeenak. Euskarari dagozkion datuez gain, bestelako datu batzuk jaso dira Plan Orokorreko helburuak zehazterakoan begi bistan izatea garrantzitsua delakoan, eragina dutelako Donostiako gizarte-bizitzan eta ondorioz, euskararen erabileran, hala nola: turismoari buruzko datuak, migrazioari buruzkoak, sektore ekonomikoari buruzkoak eta horiek guztiak edo batzuk auzoka ere bai, Donostian auzoek daukaten garrantzia dela eta. Datu hauek, nolabait, Donostiaren errealitatea hobeto ulertzen lagunduko dute eta etorkizunera begira zehaztu beharreko helburuak eta ekintzak modu eraginkorragoan diseinatzeko baliagarriak izango dira.

Azterketa kuantitatiboari dagokionez, datuak iturri ofizial desberdinetatik ekarri dira dokumentu honetara, hala nola, Donostia Estrategia 2030 Plan Estrategikoa osatzeko txostenetik, Donostiako Udaleko Donostia Data gunetik eta Turismoko 2018ko Memoriatik. Daturik esanguratsuenak, lerroburu nagusi direnak jaso dira txostenean, Euskararen Plan Orokorra kokatzeko esanguratsuenak eta euskararen erabileran neurri handian eragiten duten heinean. Hori horrela, jarraian aurkezten den eskeman jaso dira aipamena egiten zaien datuak:

Demografia
Ekonomia
Turismoa

Ezagutza
Erabilera
Lehen hizkuntza eta erabilera etxean
Hezkuntza
Euskaraldia


DEMOGRAFIA

Donostia Europa mailan tamaina ertaineko hiria da, 188.191 biztanle dituena (2019). Azken urteetan hiriko biztanleria % 0, 41 hazi da, bestela esanda, nahiko egonkor mantendu da. Emakume gehiago dago egun, % 53,8, gizonezkoak baino, % 47,2. Atzerritarrak guztira, % 7,7 dira eta 133 herrialde ezberdinetatik datoz. **Honduras** eta **Nikaragua** dira, gaur egun, jatorriko bi herrialde nagusiak. Auzoei dagokienez, **Amara Berri** da jendetsuena. **Loiola** da azken urtean gehien hazi dena (175). Biztanle gehien galdu duen auzoa, berriz, Gros izan da (38). (Donostia Datako datuak dira)

Adinari dagokionez, 2019an Donostiako populazioaren batez besteko adina 46,07 urtekoa zen (44 urtekoa gizonezkoetarako eta 47,9 urtekoa emakumezkoetarako).

Bizi itxaropena gero eta handiagoa da eta jaiotze-tasa txikia. Biztanleriaren zahartzea erakusten da ondoko grafikoan, ikusten denez zahartze jarraitua.

POPULAZIOA ADIN MULTZOEN ARABERA, 1981-2016




Iturria: EUSTAT. Populazio erroldak. Estrategia Bulegoak landua.

Biztanleriaren datua auzoetara ekarriz gero, honakoa ikusten da: populazioa udalerriaren erdialdean eta ekialdean metatzen da: ia populazioaren erdia metatzen da Amaran (biztanle gehien duen auzoan, 30.261 biztanle, % 16,3), Erdialdean (% 11,7), Altzan (% 10,9) eta Grosen (% 10). Biztanle gutxien duten auzoak dira Zubieta (289 biztanle, % 0,2) eta Igeldo (% 0,6).

Azken bost urteetan populazioak bilakaera desberdina izan du. Auzo batzuetan gora egin du populazioak: Miramon-Zorroagan, Amaran, Ibaetan eta Igeldon. Aldiz, beste auzo batzuetan behera egin du, eta galerarik nabarmenena Landerbasoko landagunean izan da (% 23,5) eta, gero, Martutenen, Grosen eta Intxaurrondon.

Donostiako populazioaren jatorriari buruz, berriz, Donostian 133 lurralde desberdinetako 186.377 pertsona bizi dira. Donostiako biztanleen erdia baino gehiago hirian bertan jaio da (% 58). Ia lautik hiru Euskal Herrikoak dira.

2016an, Donostiako populazioaren % 72,9 Euskal Autonomia Erkidegoan jaio zen(2001ean % 75,2 ziren). Beste autonomia erkidego batzuetatik datorren populazioak pixkanaka galdu du pisua, eta populazioaren % 16,9 da (1981ean populazioaren % 28,3 zen eta 2001ean % 21,7). Aldiz, atzerrian jaiotakoen kopuruak arian-arian gora egin du, jarraian ikusten den grafikoan agertzen da bilakaera: (Iturria: EUSTAT)




Iturria: EUSTAT eta Donostiako Udala Informazioko Udal Unitatea (2010). Donostia Estrategia Bulegoan landua (urte bakoitzeko abenduaren 31ko datuak

Populazio immigratzailea bertako populazioa baino gazteagoa da (33,8 urte batez beste) eta, aktiboa izan daitekeen populazioan, feminizazio maila handiagoa du (% 54,7koa da 16 eta 65 urte artean). Adin tarteen arabera aktiboa izan daitekeen populazio immigratzailea % 83,5 da eta 16 urtetik beherako populazioa % 12,6; immigratzaileen % 3,9 dira 65 urte edo gehiagokoak (Iturria: INE eta udal errolda).

2016an, auzoen arabera aztertuz gero, Erdialdean (% 9,1), Grosen (% 8), Amara Berrin (% 7,7), Loiolan (% 7,3), Egian eta Altzan (bietan % 6,8) atzerriko populazioko ehunekorik handienak metatzen direla ikusten da.

Europar Batasunaz kanpoko atzerriko populazioari dagokionez, Donostian %5aren bueltakoa da 2016-2019 urte bitartean Donostian, EUSTATeko datuen arabera. Erdialdean (% 6,8),Amaran (% 6,3), Grosen

(% 6), Egian (% 5,7), Loiolan (% 5,9) eta Altzan (% 5,2) daude Europar Batasunaz kanpoko populazio immigratzaileko tasarik handienak. Era berean,nabarmendu behar da zenbait auzotan jatorriaren araberako immigrazioa metatu dela; hartara, Marokotik datorren populazioaren erdia Altzan eta Intxaurrondon metatu da, eta Latinoamerikako populazioa Erdialdean, Egian, Grosen eta Amaran (Iturria: Donostiako Udala. Informazioko Udal Unitatea).




Laburbilduz, Euskararen Plan Orokorra diseinatzerakoan kontuan izateko lerroburu nagusi hauek aukeratu ditugu:

- Donostiako gizartearen zahartze progresiboa.
- Bizi-itxaropena gero eta handiagoa da eta jaiotze-tasa txikiagoa.
- Ondorioz, populazio gazteenaren pisu txikiagoa.
- Populazio aktiboena eta gazteena atzerritarrena da.
- Auzokako errealitatea desberdina da auzoaren araberakoa.


EKONOMIA ETA TURISMOA

Merkataritzak, adierazik zabalenean (handizkako merkataritza, txikizkako merkataritza, konponketa zerbitzuak, garraioa, ostalaritza eta sukaldaritza), Donostiako jardueraren % 33 hartzen du; pisu hori mantendu egiten da krisialdi ekonomikoaren ondorioak gorabehera (beherakada nabarmena establezimendu kopuruan: 2008an 7.616 establezimendu eta 2017an 6.241, hots, bilakaera Δ–% 18,1 izan da) (Iturria: EUSTAT).

Txikizkako merkataritza eskaintzak 2.769 negozio biltzen ditu 2017an; horietako asko saltegi tradizionalak eta familiakoak dira, saltegi txikiak. Ia horien erdiak Erdialdean (% 38,4, 1.063 establezimendu) eta Grosen (% 18,4, 512 establezimendu) daude; horien atzetik daude Amara Berri (% 11,6, 323 establezimendu), Antigua (% 6,9, 193 establezimendu) eta Altza (% 5,6, 55 establezimendu). Txikizkako merkataritza eskaintza txikiena duten auzoak Miramon-Zorroaga (4 establezimendu, hots, % 0,1) eta Igeldo (2 establezimendu, % 0,1) dira (Iturria: Donostia Sustapena).



Iturria: Donostia Sustapena. Donostiako Estrategia Bulegoak landua.



Iturria: Donostia Sustapena. Donostiako Estrategia Bulegoak landua.


Gastronomia hiriaren kulturaren eta nortasunaren garrantzi handiko osagaia da. Haren garrantziak eta ospeak nazioartean ezaguna egin du hiria. Ondorioz, hiri turistikoa da, ostalaritza eskaintza zabala eta askotarikoa duena. Ostalaritzako eta sukaldaritzako 1.364 establezimendu daude 2017an (hirian dauden establezimendu guztien % 7,2).

Sektoreak gutxi gorabehera 7.700 pertsonari ematen die enplegua 2016an (Donostiako enpleguaren % 7,6); jatetxeetan, janari postuetan eta edari establezimenduetan (tabernak, kafetegiak…) enpleguak 6.314 pertsona hartzen ditu (establezimenduko 5,4 pertsona batez beste). Hotelek eta antzeko ostatuek 1.264 pertsonari ematen diete enplegua (establezimenduko 7,2 pertsona batez beste). (Iturria: Donostia Sustapena).

Sukaldaritza establezimendu eta zerbitzuek 1.164 establezimendu biltzen dituzte 2017an (hiriko establezimendu guztien % 6,2): 468 jatetxe eta janari postu, 669 taberna eta kafetegi eta beste zerbitzu batzuetako (otordu-zerbitzuak…) 27 establezimendu. 2008an eskaintza 1.238 establezimendukoa zen eta bilakaera negatiboa izan du (Δ–% 6) 2008 eta 2017 artean (2014tik aurrera kopuruak etengabe egin du gora) (Iturria: EUSTAT).

Auzoei dagokienez, ostalaritzaren banaketa desberdina da auzo batetik bestera: Erdialdeak establezimenduen ehunekorik handiena kontzentratzen du (% 34,1, 452 establezimendu 2016an), eta ondoren daude Gros (% 15,1, 204 establezimendu), Amara Berri (% 10,4, 133 establezimendu), Antigua (% 6,9, 92 establezimendu) eta Altza (% 5,9, 79 establezimendu); pisurik txikiena Añorgari eta Miramon-Zorroagari dagokie (% 0,7, 9 establezimendu) (Iturria: Donostia Sustapena).

Ezagutzako sektore intentsiboek pisu handia dute hirian. Izan ere, orotara Donostiako establezimenduen % 42,4 hartzen dituzte 2016an(8.053 establezimendu). Sektoreak honako hauek hartzen dituzte barnean: edizio jarduerak, zinema jarduerak, bideo jarduerak eta telebista programetakoak, soinu grabazioa eta musika edizioa, irrati eta telebistako programazio eta emanaldien inguruko jarduerak, telekomunikazioa, programazioa, aholkularitza eta informatikarekin erlazionatutako beste jarduera batzuk, informazio zerbitzuak, jarduera juridikoak eta kontabilitatekoak, egoitza nagusietako jarduerak, enpresa kudeaketako aholkularitza jarduerak, arkitekturako eta ingeniaritzako zerbitzu teknikoak, saiakuntza eta analisi teknikoak, ikerketa eta garapena, publizitatea eta merkatu azterketak.




Iturria: EUSTAT. Donostiako Estrategia Bulegoak landuaZERBITZU

Merkataritza eta ostalaritza sektoreari dagokionez, kezka nagusia errelebo falta da. Establezimenduetako jabeak adinean aurrera doaz eta bertako jende gazteak ez dio heltzen bizibide horri. Ondorioz, establezimendu eta ostalaritzako negozio horiek enpresa-kate handien esku geratzen dira eta atzerritik datozen herritarrek artatzen dituzte nagusiki. Euskararen erabileran eragin zuzena du errealitate honek ezagutzarik ez dagoelako edo oso-oso baxua delako. Horregatik garrantzitsua izango da arlo honetan eragitea.

Establezimenduetako euskararen erabilerari dagokionez, bisitatutako 5.241 establezimenduetatik 1.436 (% 27,4) establezimendu atxiki zaizkio “Merkataritzan eta ostalaritzan ere euskaraz” proiektuari, eta arreta euskaraz hartzeko aukera dagoela identifikatzen duen bereizgarria dute. Horrez gain, beste datu bat ere kontuan hartu behar da. Donostiako Merkataritza eta Ostalaritzan 10.975 pertsonek egiten dute lan jendaurrean eta horien % 50 euskaldunak dira edota euskaraz ulertzeko gaitasuna dute. (Iturria: Euskara Zerbitzua, 2017). Dena den, oso sektore aldakorra da , are gehiago une honetan : establezimendu asko itxi eta ireki egiten dira maiz eta langileen joan etorria handia da eta abar.).


I+G zerbitzuen eta Informazioa eta IKTen komunikazioa ere handitu egin dira nabarmen azken urteetan. Komunikazioaren teknologiekin lotuta, internetaren erabilera goraka doa saltokien kasuan ere beste sektore batzuekin alderatuz motelago bada ere. Haien kasuan, oraindik establezimenduen erdiek web orria dute. Bestalde, I+G+B jarduerek oro har hazkundea dute azken urteetan…



Iturria: Donostia Data

TURISMOA


Turismoa hirian % 9,37 hazi da. Gehiengo handiena, atzerritik dator, % 57,86 eta estatu espainiarretik % 42,14. Estatubatuarrak dira nagusiki atzerritik datozenak eta estatu espainiarretik Madriletik gehienbat.



Iturria: EUSTAT. Establezimendu turistikoen inkesta. Donostiako Estrategia Bulegoak landua.


Donostiara datozenak gehienbat aisialdiagatik, asteburu pasa eta gastronomiak erakarrita datoz nagusiki. Badira bestelako arrazoiak ere Donostiara etortzeko, hala nola, kongresuak, jardunaldiak, mintegiak edo kirol-jarduerak. Horiek turismoaren % 63 dira, eta kultura edo zientziarekin lotutako jarduerak izaten dira batez ere. (Donostia Turismo Memoriako datuak dira, 2018koak).

DONOSTIAN EGINDAKO KONGRESUAK ETA KONBENTZIOAK



Iturria: SS Convention Bureau, Donostiako Estrategia Bulegoak landua

DONOSTIARA BIDAIATZEKO MOTIBAZIOAK



Iturria: Basquetour, Ibilitour Aisia. Donostiako Estrategia Bulegoak landua.


Hiriak 622.407 bisitari/turista hartu zituen 2016an, Europako Kultura Hiriburutza ospatu zen urtean (bidaiari kopurua % 30,6 igo da arian-arian 2011. urteaz geroztik). 2017an, hiriburutzaren ondorengo urtean, joerak bere horretan jarraitu du, hiriak urte horretan 640.628 bisitari/turista hartu baititu. Hortaz, hazkundea % 34,4koa izan da 2011-2017 aldian). Atzerriko bisitari kopuruak igoera nabarmena izan du, bisitarien % 54 izan baitira 2017an (% 77,2ko gehikuntza 2011-2017 aldian), Estatutik datozen bisitarien proportzioak (bisitarien % 46) izan duena baino askoz ere handiagoa (gehikuntza apalagoa, % 4,7koa, 2011-2017 aldian) (Iturria: EUSTAT).

EUSKARAREN EZAGUTZA


Eustaten azken datuen arabera, euskararen ezagutzak nabarmen egin du gora Donostian 1986tik 2016ra. Izan ere, euskaldunak asko ugaritu dira (% 26tik % 46ra) eta ia euskaldunen kopuruak berdin jarraitzen du (%19); erdaldunak, berriz, gutxitu egin dira (% 54 ziren 1986an, eta % 34 ziren 2016an).

Adin tarteak kontuan hartuz gero, 2016an erdaldunen kopurua jaitsi egiten da adinak behera egin ahala, eta euskaldunen eta ia euskaldunen kopurua, berriz, igo egiten da, oro har. Adin tarteak

kontuan hartzen baditugu 2016an, adinak behera egin ahala, erdaldun kopurua jaitsi egiten da eta, euskaldun eta ia euskaldun kopuruak, berriz, gora egin du. Izan ere, 2016an 25-29 urte bitarteko donostiarren %56 euskalduna zen, 1986an %22 zen bitartean. Erdaldunei dagokionez, 1986an %59 ez zen euskalduna eta 2016an, ordea, %21. Horrenbestez, argi dago euskararen ezagutza nabarmen indartu dela Donostiako belaunaldi berrien artean 1986tik 2016ra.



Irudia 1: Ezagutza datuak adinka, Donostia Euskaraz orritik hartuta



Irudia 2: Ezagutza datuak, Donostia Euskaraz orritik hartuta

Auzoetara etorrita, berriz, honakoak dira ezagutza datuak. Ezagutza altuena duten auzoen artean daude Zubieta (% 79), Igeldo (% 68), Ibaeta (% 55), Aiete (% 51) edo Antigua (%53). Taulan jaso dira datuok:

Auzoa	Erdaldunak	IA Euskaldunak	Euskaldunak
Aiete	%29	%20	%51
Altza	**%43**	**%21**	**%36**
Amara Berri	**%34**	**%20**	**%46**
Añorga	**%22**	**%18**	**%61**
Antigua	**%29**	**%18**	**%53**
Ategorrieta-Ulia	**%33**	**%19**	**%48**
Egia	**%36**	**%19**	**%45**
Erdialdea	**%33**	**%19**	**%48**
Gros	**%36**	**%20**	**%44**
Ibaeta	**%26**	**%19**	**%55**
Igeldo	**%18**	**%15**	**%68**
Intxaurrondo	**%36**	**%21**	**%44**
Loiola	**%38**	**%20**	**%42**
Martutene	**%35**	**%18**	**%47**
Mirakruz-Bidebieta	**%40**	**%21**	**%39**
Miramon-Zorroaga	**%30**	**%20**	**%50**
Zubieta	**%14**	**%7**	**%79**

Irudia 3: Ezagutza datuak auzoka, Donostia Euskaraz orritik hartuta

EUSKARAREN ERABILERA

Donostiako euskararen erabileraren datuak jaso dira jarraian, Soziolinguistika Klusterrak 1989tik 2016ra egindako zazpi neurketetan jasotako datuak agertzen dira, adin tarteka eta generoka sailkatuta.

Neurketa horietan jasotako datuen arabera, erabilerak gora egin zuen arian-arian 1989tik 2006ra, baina 2006tik 2016ra behera egin du. Adin tarteei erreparatuz gero, oro har, haurrak aritzen dira gehien euskaraz, eta adinekoak gutxien. Esate baterako, 2016an haurren % 26,9k egiten du euskaraz, eta adinekoen % 6,9k. Generoari dagokionez, gaur egun Donostiako emakumeek eta gizonek berdintsu egiten dute euskaraz (% 15 batez beste), eta hiru puntu inguru egin du behera erabilerak 2006tik 2016ra (% 18tik % 15era, alegia).

Urtea	Batez beste	Haurrak 2-14	Gazteak 15-24	Helduak 24-65	Adinekoak +65	Gizonezkoak	Emakumezkoak
2016	% 15.20	% 26.90	% 13.00	% 13.50	% 6.90	% 15.50	% 15.00
2011	% 15.20	% 27.20	% 14.60	% 14.00	% 6.30	% 15.10	% 15.30
2006	% 18.20	% 33.90	% 18.20	% 15.10	% 7.40	% 18.10	% 18.30
2001	% 15.80	% 27.60	% 17.00	% 12.90	% 6.80	% 15.80	% 12.10
1997	% 14.00	% 23.60	% 12.60	% 11.80	% 7.60	% 12.90	% 11.70
1993	% 9.50	% 17.90	% 7.90	% 7.30	% 6.60	% 0.00	% 0.00
1989	% 10.30	% 20.50	% 7.90	% 8.30	% 10.00	% 0.00	% 0.00

Irudia 4: Erabilera

Auzoetako datuei dagokionez, honakoak dira erabilera datuak: daturik baxuenen artean honako auzoak daude: Altza (% 4, 20), Bidebieta (% 7,90), Intxaurrondo (% 9,70), Loiola (% 11) edo Erdialdea eta Parte Zaharra (% 12,10). Daturik altuenak, berriz, Igeldo (% 75,40) Añorga (% 46, 20), Aiete-Miramon-Zorroaga (% 26,10).

Auzoa	Batez beste	Haurrak 2-14	Gazteak 15-24	Helduak 24-65	Adinekoak +65	Gizonezkoak	Emakumezkoak
Aiete-Miramon-Zorroaga	% 26.10	% 35.50	% 7.40	% 23.20	% 19.70	% 26.00	% 26.20
Altza	% 4.20	% 9.90	% 4.30	% 3.90	% 1.10	% 3.30	% 5.00
Amara Berri	% 18.20	% 31.50	% 14.10	% 17.10	% 7.10	% 20.30	% 16.50
Amara Zaharra	% 17.60	% 26.80	% 17.00	% 16.40	% 11.20	% 19.40	% 16.20
Añorga	% 46.20	% 61.50	% 55.50	% 36.20	% 30.60	% 48.90	% 42.50
Antigua	% 22.30	% 30.40	% 19.30	% 20.60	% 13.50	% 18.80	% 25.40
Ategorrieta-Ulia	% 16.10	% 33.30	% 13.60	% 17.00	% 4.60	% 17.10	% 15.00
Bidebieta	% 7.90	% 13.70	% 10.30	% 6.30	% 2.60	% 8.20	% 7.50
Egia	% 14.20	% 29.30	% 13.50	% 13.70	% 2.20	% 13.60	% 14.70
Erdialdea	% 12.10	% 23.50	% 6.10	% 11.20	% 8.00	% 12.60	% 11.80
Gros	% 13.20	% 27.40	% 12.00	% 11.80	% 7.30	% 14.30	% 12.40
Ibaeta	% 22.80	% 36.10	% 4.30	% 19.60	% 14.50	% 19.80	% 26.00
Igeldo	% 75.40	% 87.50	% 83.30	% 76.90	% 22.00	% 68.30	% 82.40
Intxaurrondo	% 9.70	% 14.10	% 5.20	% 11.20	% 1.40	% 9.90	% 9.50
Loiola	% 11.00	% 16.80	% 3.80	% 9.70	% 7.50	% 8.60	% 13.10
Loiolako Erriberak	% 12.70	% 19.00	% 0.00	% 10.40	% 6.40	% 12.40	% 12.90
Martutene	% 13.90	% 22.90	% 10.70	% 11.70	% 0.60	% 13.00	% 14.80
Parte Zaharra	% 12.10	% 31.40	% 8.30	% 10.10	% 5.40	% 12.50	% 11.70

Irudia 5: Erabilera auzoka 2016

Bestalde, zentzuzko zantzuak daude adierazteko eremu formaletan, erabilerarako baldintzak ematen diren lekuetan, erabilera datuak hobeak izan daitezkeela. Horren lekuko hiru adibide horiek:

1 Herritarren % 25a Udalarekin euskaraz jartzen da harremanetan.

2 Unibertsitateko bi fakultateetan Soziolinguistika Klusterrak egindako erabilera neurketan honako datuak jaso dira: HEFAn % 58 / Informatikan % 35


3 KEES 12 kirol klubetan: 1066 haur eta gazteen arteko euskara erabilera:

3.1 % 55 beti/askotan euskaraz aritzen da.
3.2 % 18 batzuetan
3.3 %16 inoiz ez

LEHEN HIZKUNTZA ETA ETXEAN ERABILTZEN DEN HIZKUNTZA

Lehen hizkuntzari buruz ari garenean, umeak hiru urte bete arte gurasoengandik edo umearekin bizi diren senitartekoengandik jasotako hizkuntzari edo hizkuntzei buruz dihardugu.

2 eta 19 urte arteko populazio osoaren % 93 da euskalduna edo ia euskalduna. Edonola ere, etxean hitz egiten den hizkuntzari erreparatuta, euskararen erabilera mugatuagoa da; etxeetan gaztelania da nagusi. Hurrengo grafikoan gaztelaniaren erabileraren beherakada dagoela ikusten da eta gorako joera, berriz, euskara eta beste hizkuntzen erabileran. Familiako hizkuntzak neurri handian markatzen du etorkizuneko erabilera hizkuntza zein izango den eta, aldi berean, bikote-hizkuntza izango da askotan familia barruko transmisioa definituko duena.



Iturria: EUSTAT, 2016

VI. Inkesta Soziolinguistikoaren arabera, Donostiako 16 urte edo gehiagoko biztanleriaren %15,6k euskara soilik jaso du etxean eta % 8,7k euskara eta erdara jaso ditu. Era berean, lautik hiruk (%75,7), erdara soilik jaso du etxean. Erdara diogunean, gaztelaniari buruz ari gara nagusiki, baina ez da ahaztu behar gero eta gehiagoren lehen hizkuntza arabiera, errumaniera eta abar direla. Adinari erreparatuz, gaur egun 16-34 urte bitarteko gazteek dute euskara soilik jaso dutenen ehunekorik altuena (% 18-19). Ehuneko horrek behera egiten du adinean gora egin ahala (% 12- % 15 artekoa), 65 urte edo gehiagokoen adin-taldera iritsi arte.

Hizkuntzaren arabera	Guztira	+65	50-64	35-49	25-34	16-24
Euskara	% 15,6	% 16,6	% 12,4	% 15	% 19,2	% 18
Euskara eta erdara	% 8,7	% 8	% 8,8	% 5	% 11,6	% 16,9
Erdara	% 75,7	% 75,4	% 78,8	% 80	% 69,2	% 65,1


Iturria: Eusko Jaurlaritzaren VI. Inkesta Soziolinguistikoa. 2016

HEZKUNTZA

D ereduan matrikulatutako ikasle kopuruak gora egin du azken hamar urteetan, bai Haur Hezkuntzatik Batxilergora doazen mailetan, bai Lanbide Heziketakoetan. Alderantzizko prozesua gertatu da A ereduan, behera egin baitu hezkuntza etapa guztietan. Lanbide Heziketari dagokionez, D eta B ereduek gora egin dute azken urteetan, baina oraindik dezente handiagoa da A ereduan ikasten duen ikasleen kopurua (% 55).

Etapa	Urtea	A	B	D
Lehen matrikulazioa	2018-2019	% 8,8	% 3,6	% 87,6
	2014-2015	% 10,2	% 4,1	% 85,7
HH+LH	2018-2019	% 8	% 14	% 78
	2014-2015	% 9	% 20	% 71
DBH	2018-2019	% 8	% 31	% 61
	2014-2015	% 8	% 37	% 54
Batxilergoa	2018-2019	% 35	% 8	% 57
	2014-2015	% 42	% 8	% 50
Lanbide Heziketa	2018-2019	% 55	% 17	% 28
	2014-2015	% 71	% 1	% 28

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saila



Iturria: Donostia Euskaraz webgunea

EUSKARALDIA

Euskaraldia ekimena 2018an jarri zen abian Eusko Jaurlaritzak eta Euskaltzaleen Topaguneak elkarlanean bultzatuta. Ekimen honek bere hastapenak Donostiako hainbat auzotako ekimenetan izan zituen eta Euskal Herri osora zabaldu zen. Sakonean bultzatzen duen ideia nagusia honakoa da:

Euskara ulertzen duten hiztunen arteko ahozko* hizkuntza-ohiturak aldatzeko ariketa sozial masiboa, gizartearen gune guztietara zabaldua eta denborari dagokionez mugatua.

Beste era batera esanda, Euskaraldiaren helburu nagusia herritarren hizkuntza ohiturak aldatuta euskararen erabilera handitzea da. Helduen aktibazioa du oinarri, eta ariketa egin ahal izateko gutxieneko baldintza euskara ulertzea da.

2018an abiatu zen lehen aldiz ariketa, Euskaraldia: 11 egun euskaraz, baita Donostian ere; norbanakoengan jarri zen arreta gunea eta milaka izan ziren hizkuntza ohiturak aldatzeko helburuarekin ahobizi eta belarriprest moduan aritu zirenak.

Ariketan euskara ulertzen edo zekiten 16 urtetik gorako helduek parte hartu zuten, Donostiaren kasuan, 98.288 biztanlerengana zuzendutako ariketa izan zen, Horietatik 63.435 euskaldunak ziren eta 32.853 ia-euskaldunak. Pertsona horietatik 17.655ek parte hartu zuten (12.852 ahobizi eta 4.803 belarriprest). Guztira, Donostian euskara ulertzen zuen biztanleen % 18,3k parte hartu zuen ariketan. Kontuan izanik lehen aldiz egindako ariketa zela eta parte hartu zutenek modu kontzientean egin zutela, balorazioa positiboa izan da.

Generoa	Ahobizi	Belarriprest	Guztira
Emakumezkoa	8.174	2.982	11.156
Gizonezkoa	4.557	1.789	6.346
Ez binarioa	121	32	153
Guztira	12.852	4.803	17.655

Iturria: Euskaraldia Donostia

16-30 urte bitartekoen parte hartzea

30 urte azpikoak	Ahobizi	Belarriprest	Guztira
Emakumezkoa	**2.128**	**390**	**2.518**
Gizonezkoa	**1.140**	**288**	**1.428**
Ez binarioa	**43**	**7**	**50**
Guztira	**3.311**	**685**	**3.996**

Iturria: Euskaraldia Donostia

Auzoetara etorrita, berriz, Euskaraldiaren garapena desberdina izan da auzo batzuetan eta besteetan errealitatea desberdina baita auzo batetik bestera. Auzoetako batzordeen funtzionamenduak izan du horretan eragina. Batzuetan aurretik abiatutako ekimenei segida emateko balio izan du eta bestetan, zerbait berria abian jartzeko. (Iturria: Donostiako Euskara Zerbitzua).

AUZOA	AHOBIZI	BELARRIPREST	PARTE HARTZAILE KOPURUA	PARTE HARTZEA %
AIETE	801	271	1072	6,09
ALTZA	550	266	816	4,63
AMARA	924	374	1298	7,37
AMARA BERRI	756	305	1061	6,03
ANTIGUA	1924	500	2424	13,77
AÑORGA	256	54	310	1,76
BIDEBIETA	237	114	351	1,99
EGIA	1189	400	1589	9,02
ERDIALDEA	870	437	1307	7,42
GROS-ULIA	1592	511	2103	11,94
IBAETA-IGARA	342	94	436	2,48
IGELDO	143	26	169	0,96
INTXAURRONDO	908	447	1355	7,69
LOIOLA	206	100	306	1,74
LOIOLAKO ERRIBERAK	276	118	394	2,24
MARTUTENE	148	66	214	1,22
MORLANS	74	24	98	0,56
PARTE ZAHARRA	1557	655	2212	12,56
ZUBIETA	32	7	39	0,22
BESTEAK	72	33	105	0,38

5. BALORAZIO KUALITATIBOA ESPARRUKA

Aurreko Donostiako Euskararen Plan Orokorra, Eusko Jaurlaritzaren Euskara Sustatzeko Ekintza Planak (ESEP) markatutako helburu eta zehar-lerroen arabera antolatu zen. Horrela, balorazioa planean zehaztu ziren esparruen arabera egin da lan-mahai eta eragile desberdinekin. Oinarrian Euskara Zerbitzuak egindako balorazioa hartu da abiapuntu gisa eta talde desberdinetan jasotako ekarpenekin osatu. Hasierako lerroetan aipatu bezala, honako taldeak osatu dira: Merkataritza-ostalaritza lan-mahaia, Kiroleko lan-mahaia eta Kultur eta jatorri aniztasuneko lan-mahaia. Horiekin batera Euskararen Kontseilu Sektoriala eta Talde Eragilea.

Balorazioa, esan bezala, esparruz esparru egin da talde guztietan. Hauek ESEP markoaren araberako esparruak 2014-2019 Plan Orokorrak jasotzen dituenak:

JABEKUNTZA	ERABILERA	ELIKADURA
– Familia bidezko transmisioa – Irakaskuntza – Euskalduntze-alfabetatzea	– Administrazioa – Arlo Sozioekonomikoa – Aisialdia eta kirola	– Kulturgintza – Corpus Plangintza – Hedabideak – Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak (IKT)
ZEHARLERROAK		
– Sentsibilizazioa eta zabalkundea – Auzoetako Plan Integralak – Gazteak		

Balorazioa osatzeko talde guztietan berrikuntza matrizea osatu da: INDARTU beharreko ekintzak, BERRITZEKO ekintzak, KENTZEKO ekintzak eta EUSTEKOAK.

Plan Orokorreko helburuak eta neurriak abiapuntu hartuta, dokumentu honetan ESPARRUZ ESPARRUKO MATRIZEAK jaso dira, talde guztien artean osatutakoak.

FAMILIA BIDEZKO TRANSMISIOA

ALDERDI POSITIBOAK

- 1.810 guraso eta aitona-amona euskara ikasten, guztira 171 talde.
- Sentsibilizazio lana eta komunikazio lan handia egin da.
- Euskara irakasleek oinarrizko soziolinguistika kontzeptuez jabetzeko ikastaroa jaso dute.


- Parketarrak ekimena hiriko parke eta jolaslekuetan. Balorazioa ona da. Guztira 420 saio egin dira auzo desberdinetan. 2019an Gros eta Antiguara zabaldu da ekimena.
- Haur jaioberrien kanpaina ekintza txikia baina baliagarria da. Gurasoekiko sortzen den komunikazioak eragina du.

HOBETZEKO ALDERDIAK

- Guraso elkarte eta erretiratuekin gertuagoko lana egin beharra dago.
- Gurasoak sentsibilizatzeko bide berriak behar dira. Estrategia eta aliatu berriak behar dira.
- Euskaltegietako guraso taldeetan lantzeko ikas unitatea hobeto nola inplementatu aztertu.

  Etorkinak euskarara erakartzeko bideak garatu. Elkarlana Udaleko kultur aniztasun taldearekin.

Taldeetan jasotako ekarpenetan bereziki etorkinengana iristeko beharra aipatu da. Oinarri eta kontzeptu soziolinguistikoen pedagogia egitea aurrera begira bide interesgarritzat jo da.



IRAKASKUNTZA

ALDERDI POSITIBOAK


- D eredua nagusi da derrigorrezko irakaskuntzan eta ondorengo mailetan
- Plangintzaldi honetan esperientzia pilotuak martxan ikastetxeekin batera (83 ikastetxe)
- Erabilerarekin kezkatuta Euskaraldiak ilusioa piztu du.

- Eskola orduz kanpoko hainbat egitasmo martxan: sentsibilizazio ekintzak gazteentzat, ahozkotasuna lantzeko egitasmoak edo hezitzaileekin formazioa soziolinguistika kontzeptuez jabetzeko.

HOBETZEKO ALDERDIAK

- Gazteengandik gertuago egoteko moduetan asmatu.
- Elkarlana indartu sektoreko eragileekin.
- Ahozkotasunean eragiteko bideak jorratu.
- Ikasle etorri berriekin eskolak egiten duen lanaren osagarri diren bideak landu.

Taldeetan aztertutakoaren arabera, orain arte egindako bidea mantentzearen alde egiten da. Ondo baloratu da ezagutza soziolinguistikoa gazteen artean zabaltzen jarraitzea, baita etorri berriei zuzendutako programak ere. Gurasoen artean nolabaiteko harreman-sarea sortzea beharrezkoa ikusi da, Gurasolagun bezalako programak bultzatuz.



EUSKALDUNTZE-ALFABETATZEA


ALDERDI POSITIBOAK

- Euskara ikasleen kopuruak gora egin du azken urtean.
- Mintzapraktika jarduerak indartu dira. 2018an 350 Mintzalagun ibili dira, gora egin du kopuruak lau urtetan.
- Mintzanet egitasmoan 68 donostiarrek parte hartzen dute. Mintzakuadrillak gazteekin. Mintzodromoa martxan, Balorazio ona.

HOBETZEKO ALDERDIAK

- Langabetuentzako doako ikastaroak arrakasta nahikorik ez.
- Doakotasunaren bidean urratsak egiten jarraitu.
- Mintzapraktika egitasmoetarako bidelagunak (boluntarioak) behar.
- Euskaltegiekin elkarlana areagotu ikasleen artean kultur-eskaintzaren kontsumoa areagotzeko.

Doakotasuna izan da taldeetan nagusitu den ideia orokorra eta etorri berriekin lan berezia egin beharra ikusi da, berariaz haien beharrei egokitutako eskaintza diseinatuz. Baina, oro har, gizartean bizi ditugun aldaketei egokitzeko euskaltegiek euskara ikasteko moduetan eraldaketa beharra jaso da.



ADMINISTRAZIOA

ALDERDI POSITIBOAK


- Administrazioan langile ugarik du euskaraz lan egiteko gaitasuna, lanpostuen HEn betetze-maila % 91,99 da. Ordezkari politikoen kasuan gero eta gehiago dira euskara dakitenak. (% 70)
- Erabileran, lan-hizkuntzan aurrera egin da nahiz eta hobetu beharrik baden.
- VI. Plangintzaldiko Erabilera Plana onartu da 5 urtetarako (2018-2022)
- Hizkuntza irizpideak zehaztu dira Udalaren jarduera desberdinetarako.
- Euskarazko atalak izendatu dira eta 5 izango dira nagusiki euskaraz lan egingo duten sailak.

- Administrazioarekiko harremanetan euskara erabiltzeko urratsak egingo dira harremanak euskaraz izan daitezen.
- Udal langileen inplikazio ona: 19 batzorde, 117 langile batzordeetan.
- Euskaraldiak babesa izan du: 485 langile eta ordezkarik eman zuten izena ekimenean.
- Udalaren mendeko erakundeak eta sozietate publikoak euskararen erabilera sustatu eta arautzen ari dira.

HOBETZEKO ALDERDIAK

- Herritarrari zerbitzua euskaraz bermatuko bazaio, modurik eraginkorrena da euskaraz ere normaltasunez lan egiten duen Udala lortzea. Udalak eredugarri izan behar du.
- Euskararen erabilera zehar-lerroa da Udalaren jarduera guztietan eta bere jarduera guztietan hizkuntzen kudeaketa egitea udal agintariek.
- Langile kopuru handiko lantaldeek herritarrekiko harremanak euskaraz erraztasunez eta eroso aritzeko berariazko prestakuntza jasotzea.
- Espazio publikoaren erabileran hirugarrenek bete beharreko hizkuntza-irizpideen jarraipenean hobetzea.

Administrazioak bere bidea egin du urteetan eta plangintzaldiz plangintzaldi joan da urratsak egiten. Egun, udal langileen ezagutza altua da eta erabileran jarri behar dira indarrak, ahozko eta idatzizko erabileran, hain zuzen. Taldeetan erabilera sustatzeko gako nagusi gisa identifikatu dira liderren eredugarritasuna eta euskaraz nagusiki lan egingo duten Udaleko atalen izendapena.




ALDERDI POSITIBOAK

- Merkatari eta ostalariei zuzendutako euskara ikastaroak antolatu dira. Merkatarien artean talde egonkorrak sortu dira, 51 talde, 502 merkatari.
- Merkataritzan eta Ostalaritzan ere euskaraz egitasmoa hiri osora zabaldu da lehen hitza euskara egitea sustatzeko. Bisitatutako establezimenduen % 27,4 bat egin dute. % 49k euskaraz egiteko gaitasuna du.
- Euskaraldiarekin bat egin dute Bretxa Merkataritza guneak eta Garberak, sustatzaile gisa.
- Arccon hizkuntza paisaian eragin da
- San Martin Merkataritzan ikerketa lana egin du EHUko HEFAk
- Inditex establezimenduetan eragiten hasita.
- Merkataritza lantaldea martxan: Gipuzkoako Ostalarien Elkartea, Shops, Gipuzkoako Merktaritza Federazioa kideetako batzuk.
- “Erraza da” egitasmo pilotuak harrera ona.

HOBETZEKO ALDERDIAK

- Euskara Zerbitzuak eskaintzen dituen zerbitzuak hobeto komunikatzea.

Oro har ondo ikusi dira orain arte sustatutako programak eta kanpainak. Ostalari eta merkatarien artean ezagutza sustatzea da erronka nagusietako bat eta establezimenduetako hizkuntza paisaia euskaraz izatea. Euskara Zerbitzutik antolatutako ekimenak indartzeko beharra nabarmendu da taldeetan, eta modu berrietan asmatu beharra, hala nola, metodologian, ikasteko dauden eskaintzetan eta egiteko moduetan, oro har. Elkarlanak eta sinergiak bilatzea gogoan eduki beharreko puntua izango da aurrera begira.



AISIALDIA

ALDERDI POSITIBOAK


- Eskolaz kanpoko gune monitorizatuak begiraleen ardurapean antolatzen direnak lehentasun izan dira.
- Begiraleak eta entrenatzaileak euskaldunak izan daitezen neurriak hartu dira gaztetxoen hizkuntza ohituretan eragiteko, sentsibilizazioari dagokionez, formazioa sustatuz.
- Hutsuneak sumatu dira begirale eta entrenatzaileen hizkuntza gaitasuna eta ohituretan, ondorioz, indartu beharra dago.
- Kirolaren pisua ikusita, kirol elkarteekin entrenamenduak euskaraz egin daitezen estrategia lehenetsi du. Entrenamenduak euskaraz izateko estrategia lehenetsi da.
- Zuzendaritzekin, arduradunekin gaia landu da.

- KEES (Kirol Entrenamenduetan Euskara Sustatzeko) metodologia zabaldu da hiriko beste elkarteetara. 77 taldetako 1.100 haur eta gaztetxok parte hartu dute
- Oporretan euskaraz udaleku irekiak eta Parketarrak egitasmoak antolatu dira. Euskarabentura espedizioa diruz lagundu da.
- Auzoka hainbat ekintza bideratu dira.
- Udal barruko sailekin elkarlana (Gazteria, Donostia Festak, Donostia Kirolak) harremanak gero eta emankorragoak dira
- Ikastetxeekin harreman estua.

HOBETZEKO ALDERDIAK

- Elkarlanean sakondu oro har.
- Aisialdiko eragile pribatuetan ez da eragin.
- Donostia Festak sailarekin elkarlanerako bide berriak aztertu behar.

KEES egitasmoa erreferentzia gisa hartu eta kirol eragile gehiagorengana zabaltzea ikusi da erronka nagusi gisa; aurrera begira entrenatzaile, begirale eta oro har gune monitorizatuetako eragileekin lan eginez jarraitzea, sentsibilizatzen eta formazioa ematen, estrategikotzat baloratu da.



ALDERDI POSITIBOAK

- Euskarazko sorkuntza bultzatzeko euskarazko antzerkigintza sustatu da: Antzerki Saria (84 antzezlan, 221 emanaldi eta 42.368 ikusle) eta Poltsikoko Antzerki Sorkuntza. (30 proiektu, 54 emanaldi euskaraz)
- Oihenart aforismo lehiaketa eta Koldo Mitxelena Literatura lehiaketa osasuntsu daude.
- Euskarazko kultur eskaintzak gora egin du hirian. Azken urteetan kultur eskaintza oparoa eta sendoa izan da.
- Euskaraz azpititulatutako filmak sustatu dira Zinemaldian eta Beldurrezko eta Fantasiazko Zinemaren Astean.

HOBETZEKO ALDERDIAK

- Eskaintzaren berri ematen jarraitzeko estrategia berriak martxan jartzea.



CORPUS-PLANGINTZA

ALDERDI POSITIBOAK

- Hitzarmena sinatuta Euskaltzaindiarekin Donostiako toponimia eta kale-izenen jarraipena egiteko.
- Hamar mila erregistroko datu-basea osatuta toponimiari buruzko kontsultak erantzuteko.
- Hizkuntza irizpideetan toponimia normalizatzeko prozedura adierazita dago.
- Donostiako Ahotsak.com egitasmoa bukatuta.
- Zuzenketa/itzulpen zerbitzua eskaintzen zaie herritarrei doan.
- Gazteen adierazkortasuna lantzeko 2 ekintza: Gu ere bertsotan eta Botaba lehiaketa.

HOBETZEKO ALDERDIAK

- Itzulpen eta zuzenketa kopuruak gora egin du, baina zerbitzua ez da asko erabiltzen.

HEDABIDEAK

ALDERDI POSITIBOAK

- Udalak urtero diruz laguntzen ditu Irutxuloko Hitza, Hamaika Telebista, Ttan Ttakun irratia eta Antxeta irratia.
- Irutxuloko Hitzaren irakurle kopurua egonkortu da. Edukiak sarean jarri ditu eta formatu aldaketa ona izan da albiste irakurrienak sarean jarritakoak izan direlako.

HOBETZEKO ALDERDIAK

- Paperezko edukian, oro har, ez du gora egin.
- Euskarazko hedabideek ez dute erreferentzialtasunik lortu.
- Euskarazko tokiko hedabideak bateratzea ez da gauzatu Donostian (Gipuzkoako beste eskualdeetan ez bezala).
- Gaztezuloko Beitu plataforma sustatzen ahalegina egin da baina emaitzak hobetu beharra daude.
- Euskaraz sortu, hedatu eta erreproduzitzea helburua. Publizitatea euskaraz sortu behar.
- Hausnarketa behar da gaiaren inguruan baina Euskara Zerbitzuak baliabide mugatuak dauzka.

INFORMAZIO ETA KOMUNIKAZIORAKO TEKNOLOGIAK (IKT)

ALDERDI POSITIBOAK

- Euskarazko wikipedia sustatzeko ekimenak abiatu dira. Amarapedia proiektu-pilotua abian, Euskal Wikilarien Elkartea sortzeko ekimen aitzindaria izan da. 2017an elkarte honek euskarazko Wikipedia sustatzeko ardura hartu zuen. Eusko Jaurlaritzaren Aholku Batzordeak lehentasunezko gaitzat jo zuen euskarazko Wikipedia sustatzea.
- Euskara eta teknologia elkartzeko helburua duten egitasmoak laguntzen dira: Euskarabildua jardunaldi dibulgatzaileak eta Botaba esamoldeen lehiaketa (internet bidez).

SENTSIBILIZAZIOA ETA ZABALKUNDEA


ALDERDI POSITIBOAK

- Euskararen irudi positiboa zabaltzeko eta euskararen aldeko atxikimendua lortzeko asmoz, kanpainak jarri dira abian, hala nola, “Donostian ere euskaraz” eta Euskararen Txantxangorria kanpaina orokorra
- Euskararen Egunaren harira auzo guztietan antolatzen diren egitasmo eta ekintzak.
- Donostia 2016ko hiriburutza baliagarria izan da, besteak beste, Hizkuntza aniztasunaren balioak gizarteratzeko, hizkuntza aniztasuna kudeatzeko ereduak sortzeko, euskarak hizkuntza gutxiagotuen artean duen garrantziaz jabetzeko eta euskararen proiekzioa hirian zabaltzeko.
- Euskaraldia, erabilera ariketa erraldoia, Euskararen aldeko diskurtso berriak eraikitzeari begira, euskal hiztunak ahalduntzeari begira eta euskara ulertu bai baina hitz egiten ez dutenen garrantzia ikusarazteari begira, azken urteetan egin den jauzi kualitatibo handiena izan da. 12.852 ahobizi eta 4.803 belarriprest. Hau da, parte har zezaketen donostiarren %18,3k parte hartu zuen.
- Hiriko eragile askorekin eta hiriz gaindiko hainbat eragile eta erakunderekin elkarlanean bideratu da prozesua.
- Euskaraldia sortu aurreko urratsak Donostiako hainbat ekimenetan eta auzotan eman ziren, ekimena sortzeko eta garatzeko funtsezkoak.
- Maila txikiagoan ere egin da lan: norbanakoekin, udaleko langileekin, elkarteekin, enpresekin.

HOBETZEKO ALDERDIAK

- Sentsibilizazio eta motibazioarekin euskararekiko atxikimendua baino zerbait gehiago bilatu behar dugula.
- Herritar guztiak partaide izan daitezkeen diskurtso inklusiboa eraikitzea: etorkinak eta elebakarrak erakartzeko lan egin beharra dago.

- Euskararen biziberritze prozesuan pertsona bakoitzak eta erakunde bakoitzak duen garrantziaz ohartarazteko diskurtsoak landu eta partekatzea.




AUZOETAKO PLAN INTEGRALAK

ALDERDI POSITIBOAK

- Auzoetako euskara batzordeak indartzeko zerbitzua jarri zen martxan Euskara Zerbitzutik eta diru-laguntza lerro bat zabaldu zen auzoetan diagnostikoa egin, lehentasunak erabaki eta plan integralak osatzeko.
- Auzo bakoitzaren errealitatea desberdina da eta ekimenak ere maila desberdinekoak izan dira. Guztira 12 auzotan daude euskara batzordeak antolatuta. 400 bat ekintza eraman dira aurrera auzoetan batzordeen bitartez. Sentsibilizaziorako ekintza makroetan parte hartzeko ere garrantzitsuak dira batzordeak (Korrika, Euskararen Eguna...)

HOBETZEKO ALDERDIAK

- Eragile gehiagorengana iristea eta batzordeak osatzea.
- Batzordeen arteko komunikazioa eta elkarlana areagotzea, sarea sortzea.



GAZTEAK

ALDERDI POSITIBOAK

- Euskararen erabilera soziala hezkuntza esparruan bultzatzeko ekimenak, hala nola, "Koldo Mitxelena Literatur lehiaketa", "Gu ere bertsotan", "Haurrak beti Jolasean", "Ekolingua", "Euskara batzordeen topaketak"
- Gune monitorizatuetan eragiteko ahalegin handia egin da, KEES metodologia txertatzen kirol arloan, eta gaztelekuetan eta haur txokoetan gazteen erabilera sustatzeko motibazio saioak.
- Gaztetxoen berezko guneetan (aisialdirako dituzten berezko espazioak eta denborak) eragiteko ekintzak ere antolatu edo lagundu dira, Mintzakuadrilla, Beitu plataforma, e.a. Ekimen publikoetan ere bai, hala nola, Festaz Blai eta Izarrak Plazara talentu lehiaketan.
- Elkarlanerako apustua egin du Euskara Zerbitzuak

HOBETZEKO ALDERDIAK

- Gune monitorizatuetan eragin beharra, eragin eremua oso zabala baita.
- Donostia Festak-ekin elkarlanean jarraitu baina estrategia aldatuz.
- Gazteria saila, Donostia Kultura eta Bagerarekin elkarlanean jarraitu eta sakondu. Beste eragile batzuengana ere jo.

6. ETA HEMENDIK AURRERA, ZER?

Mundua ez da orain artekoa izango pandemiaren ondoren. Nahikoa bat etor gaitezke guztiok esaldi honekin eta atal honetan saiatuko gara hainbat adituk batean eta bestean esandakoak hemen jasotzen, baina gogoeta egiteko asmoarekin, inork ez baitaki ziurtasunez esaten gure gizartean zein aldaketa izango diren dagoeneko begi-bistan ditugun aldaketez gain.

Berrasmatu kontzeptua da gehien entzuten ari garena azkenaldian eta *normaltze berria* ere aipatzen da batean eta bestean. Arlo sozioekonomikoan joera berriak, giza harremanetan eraldaketa edo bizitzeko ohitura berriak izango ditugula argi irudikatzen ari gara behin etxealditik ateratzen garenean.

Batzuen esanetan pandemia hau ez da bakarra izango eta hurrengo urteetan beste halako batzuk ere bizi izango ditugu. Beraz, orain abian jarri diren neurri batzuekin bizitzen ohitzea ekarriko du honek. Krisiak garbi utzi digu gizakia zaurgarria dela eta elkarren beharra daukagula. Gehiago dela ez dakiguna, dakiguna baino.

Aurreikusten diren aldaketei dagokienez, aditu batzuen esanetan gizarte zibilak pisua hartuko du eta gizatasun handiagoz jokatu beharko dugu. Diziplinatuagoak izan beharko dugu, sentipenak, arrazoia eta diziplina konbinatu beharko ditugu. Bestelako gizarte zibil baten beharra aurreikusten da. Ideia honi gehitzen diote adituek, gizarte kohesionatuaren beharra, eta kultura kohesiorako elementu garrantzitsua izan daitekeela uste da. Euskara ere, kohesiorako erreminta izatea lortu beharko dugu, agian.

Instituzioen rolari dagokionez, lidergo partekatuaren beharra ikusten da, hau da, konfiantzan eta harremanetan oinarritutako kudeaketa batena, oinarrian kooperazioa duena.

Globalizazioa ere berrasmatu beharra dago eta orain arteko deslokalizazioaren aurrean autosufizientziarako bidea egin beharra ikusi da, krisi honek erakutsi baitigu erabat mendeko izan garela, Txinarekiko, esaterako. Aldiz, globalizazioak izan ditzakeen elementu onak mantentzea, hala nola, ezagutza edo zientzia arloetan nazioarteko harremanak izatea, oso onuragarria eta beharrezkoa ikusten da.

Dena dela, badira dagoeneko bizitzen ari garen aldaketak, eta berehala aplikatu ditugunak pandemiak behartuta nolabait esanda:

- Digitalizazioa: elementu gakoa izango da aurrerantzean ere eta gure eguneroko bizitzaren parte izango da urrutitik jardutea, hala nola telelana, on-line ikastea edo erosketak Internet bidez egitea. Elementu honi lotuta, badira Interneterako konexioa izatea oinarrizko eskubidea izan behar dela diotenak ere. Telelanean aritzeak onura handiak ekarri ditu, joan-etorriak ekidin direlako. Jardunaldiak, prestakuntzak eta halakoak, asko, urrutitik egingo dira hemendik aurrera. Horrekin batera ezin ahaztu, Internet bidezko kulturak edota aisialdiak orokorrean hartu duen nagusitasuna, bereziki gazteen artean.
- Hezkuntzari dagokionez, etxealdiak umeak familia barruan egotera behartu ditu. Familia arteko harremanak sendotzeko aukera eskaintzeko plaza egokia izan badaiteke ere, familia euskaldunak ez direnenek zail daukate euren haurrei haien heziketan laguntzea eta haien heziketan parte direla sentitzea. Ondorioz, umeen euskara ezagutzan, erabileran eta atxikimenduan eragin negatiboa izan dezake horrek. Maila honetan izan dira ekimenak, EITBk abian jarritako *Bitartean, etxetik ikasten*, esaterako, baliabiderik eta euskaraz aritzeko aukerarik ez daukaten umeek telebista bidez jarraitu ahal izateko, euskaraz. Halako ekimenak

positiboak dira eta ziurrenik eredu gehiago beharko dira etorkizunean ere. Zenbait kasutan, baliabide materialik *(ordenagailuak*,…) ez daukaten familientzako laguntzak ere eskaini dira eta boluntarioz osatutako zenbait zaintza-sare ere sortu da haurrei etxeko lanak egiten laguntzeko, eta abar. Ziurrenik, halako politika aktiboen beharra izango da ume guztien aukera berdintasuna lortze aldera. Euskara ere, Interneterako konexioa izatea bezalaxe, oinarrizko eskubide bat dela uste dugu, ume guztiek euskaraz gozatzeko aukera izatea ezinbestekoa da.

- Eta, hezkuntzarekin jarraituz, hezkuntzak on-line bidezko edukiak emateko prestatu beharko ditu bere profesionalak. Zer egin, nola jokatu, nola eman arreta pertsonalizatua ume bakoitzari? Bideoak, tutorialak, podcast-ak… bezalako formatuek indarra hartu dute irakaskuntzan. Ikasleen artean hausnarketa eta egoera errealetan ezagutza aplikatzea bultzatuko da, eta zer esanik ez, konpetentzia digitalen ezagutzak pisua hartuko du. Kasu honetan, euskararentzako ere agertoki berria abiatu da, zein tratamendu eman hizkuntzari, nola uztartu familia-euskara eta hezkuntzako gaiak.

- Arlo sozioekonomikoari dagokionez, ekonomia suspertzeko diru-laguntzak abian jarriak dira instituzio desberdinetatik bai turismoa suspertzeko bai merkataritza eta ostalaritza arloetan ere. Donostiara etorriz gero, gainera, arlo sozioekonomikoan pisu berezia dutenak. Berehalako aldaketa bat, esaterako, Market Place erosketak egiteko plataforma abian jarri izana; nolabait, orain arte aldaketa egitera ausartu ez diren komertzioek, halabeharrez, eredu berri honetara jauzia eman dute eta dagoeneko aukera daukate euren produktuak Internet bidez saltzeko. Aztertu beharko da eta jarraipena egin beharko zaio euskarak zer nolako bilakaera hartzen duen kontsumitzeko modu berri honetan, zein den eskaintza eta nola eragin kontsumitzaileen hizkuntza-ohituretan.

- Ezagutza arloan, bestalde, badirudi urrutitik elkar-harremanak izateko ohitura erraz errotu dela. Mintegiak, jardunaldiak on-line plataforma bidez egiteko ohitura *gure artean geratzeko etorri da* eta, ondorioz, ziurrenik gero eta ohikoagoak izango dira. Halakoak sustatu eta antolatzen dituztenek, beharbada, hizkuntza-irizpide eta jarraibideak eskuartean izatea eskertuko dute, euskarak dagokion presentzia izan dezan eta beste hizkuntzekin elkar-bizitzeko.

Eta oraindik jarduera gehiago berrasmatu beharko dira, edo berriak sortu. Bitartean egoerak dakarkiguna gertutik behatu beharko dugu, hausnartu eta ikasi.

7. EUSKARAREN PLAN OROKORRA (2020-2024)

7.1 MISIOA

Donostian euskara berreskuratzeko eta zabaltzeko bidean aurrera egitea, Udalak eskumena duen arloetan eta erakundeetan eraginez. Prozesu honetan Udala osatzen duten eragileek bere egingo dute euren ohiko jardunean euskararen erabilera normalizatzen joatea eta eredugarri izango dira.

Donostiako gizarte-bizitza osatzen duten eragileekin lankidetzan, Donostian dauden behar berrietara egokituz lan egingo dugu euskararen erabilera indartzeko, donostiar guztiei euskaraz bizitzeko baldintzak eskaintzen, euskararekiko atxikimendua sustatuz eta euskaraz ez dakitenak euskara ikastera erakarriz. Donostia Euskararen Hiria izan dadin urratsak egingo ditugu.

7.2 PRINTZIPIO OROKORRAK

Donostiako Euskararen Plan Orokor honek hirian euskararen erabilera normalizatzeko eta sustatzeko helburuak eta ekintzak zehazten ditu 2020-2024 aldirako. Planaren helburu, neurri eta gainerako xehetasunak xehetasun, oinarrian dituen printzipioak dira planaren ezaugarri nagusiak definitzen dituenak.

Hona printzipio horiek:

Aukera berdintasuna

Egoera desberdinetan daudenak berdin tratatzea ez da berdintasuna. Berdintasunak zera esan nahi du: aukera berdinak izateko aukera ematea, ekitatea, gogo-berdintasuna jorratzea. Horregatik da hain beharrezkoa tokian tokiko hizkuntzen aldeko babes-neurriak eta maila soziala garatzeko neurriak hartzea.

Berdintasunaren printzipioaren arabera presentzia handiagoa, nabarmenagoa eta neurri laguntzaileak beharko lituzke egoera apalagoan dagoen hizkuntzak, gure kasuan euskarak, egunen batean beste hizkuntza batzuek eskaintzen dituzten aukera berdinak eskaini ahal izateko.

Erakundeek oro har, eta publikoek bereziki, badute gizartearekin erantzukizun argi bat: bizikidetza hobetzeko aukera berdintasuna bermatzea, baita hizkuntza esparruan ere. Hain zuzen, hizkuntza desoreka nabarmena denean jarrera orekatzailea hartzea dagokie, euskaraz egin daitekeena euskaraz eginda, erakunde barruan nahiz gizarteari begira. Edo hizkuntza ekologiak dioen bezala: hizkuntza aniztasunari eusteko, hizkuntza txikiari funtzio propioak eman behar zaizkio, beharrezkoa izan dadin. Funtzio propio horietako bat administrazioaren hizkuntza nagusia bihurtzea litzateke.

Donostiako Plan Orokorrak, bestalde, emakume eta gizonen arteko berdintasuna bilatuko eta sustatuko du etengabe planetik abiatzen diren ekintza eta proposamenetan eta hizkuntzaren

erabilerari dagokionez ere erabilera ez-sexista bermatuko da. Genero berdintasuna zeharkako ardatz gisa hartuko dugu Plan Orokorrean.

Donostiako Udala arnasgune eta eragile

Donostian euskararen erabilera normalizatua lortu nahi badugu, Udalari bere jardunarekin eredugarri izatea eta gizartearen aurretik joatea dagokio. Alde batetik, legeak esaten duena betez eta bestetik, eskumena duen neurrian, bere menpean dauden erakundeen bide-erakusle eta gidari izanez.

Euskararen ofizialtasunak herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzea du helburu eta Donostiako Udalak bere jardueraren oinarrian printzipio hori du; herritarrek Udalarekiko harremanetan hizkuntza aukeratzeko duten eskubidea bermatu behar du eta herritarrei ezerosotasunik eragin gabe errespetatuko du herritarren hizkuntza aukera.

Donostiako Udalak 2018tik 2022ra bitartean indarrean duen Euskararen Erabilera Normalizatzeko 6. Plangintzak jasotzen du barruko erabileran jarriko dela arreta berezia; udal administrazioaren esparru guztietan bi hizkuntza ofizialak erabiltzea lortu nahi da, bai ahoz eta bai idatziz. Horrela, lan hizkuntzan aurrera egin ahala, bi hizkuntzen arteko desoreka murriztuko da eta zerbitzu hizkuntzan egon daitezkeen gorabeherak ere gaindituz joango dira.

Betebehar bera izango dute, bestalde, Donostiako Udalaren mendeko organismo eta erakundeek ere. 179/2019 Dekretuaren eraginpean dauden erakundeak izanik, zerbitzu hizkuntza euskara ere izan dadin bermatuko dute eta urratsak egingo dituzte lan hizkuntza ere izan dadin.

Euskararen erabilerari buruzko udal politikak zehar-lerro izaera dute Udalaren jardunean; bestela esanda, udal agintariek eta udal langileek bere egingo dute hizkuntza-politika eta udaleko departamentu edo prozesuetako funtzionamenduan txertatuko da, sail bakoitzeko arduradun eta ordezkariek euskararen normalizazioa euren ardurapean hartzen dutelarik.

Ulermena unibertsalizatzea helburu

Donostian euskararen ezagutza gero eta handiagoa da D ereduaren hedapenari eta euskaltegiek helduak euskalduntzeko egindako lanari esker. Hala ere oraindik badaude kolektibo batzuk euskararen ezagutzarik ez dutenak, besteak beste, adin bat duten pertsonak, euskarazko ereduetan ikasi ez dutenak edo hirira etorri berri direnak.
Aipatu kolektiboetan erabilera areagotzeko, edo gutxienez ulermena lortzera iristeko neurriak eta bitartekoak jartzea beharrezkoak izango dira kontuan izanik gero eta kolektibo handiagoa izango dela hirian.
Hizkuntza aukeratzeko pertsona guztien askatasuna bermatzekotan, ulermena orokortzea ezinbestekoa da, izan ere, bi pertsonen arteko komunikazioan, bakoitzak berdintasunean gauzatu ahal izango du bere hautua besteak gutxienez ulertzen badu.

Kultur- aniztasuna

Azken hauen kasuan, kontuan hartu beharra dago Donostiako gizartean etorri berrien kopurua goraka doala eta Donostiako bizitzako parte aktibo direla, bereziki lan-esparruan: merkataritzan, ostalaritzan eta zaintza arloan.

Beraz, bi hizkuntza ofizialez gain, ehunka hizkuntza dauzkagu gure hirian. Hizkuntza eta kultur aniztasun hori oinarri harturik dagokigu aurrera egitea euskararen normalizazioa lortzeko bidean.

Udalaren eskumenak eta erakundeen arteko koordinazioa

Erakunde publiko guztiek hartzen dute parte hizkuntzaren normalizazio prozesuan, bakoitzak bere mailan. Hizkuntza politikaren ardatzak zehaztea eta prozesua gidatzea erakunde publikoei dagokie eta kudeaketa mailan bakoitzak konpromisoak hartu behar ditu, bere eskumenak kontuan hartuz. Donostiako Udalak, Euskara Zerbitzuaren bitartez, berari dagozkion eskumenak kontuan izanik ekingo dio planaren inplementazioari, betiere, erakundeen arteko elkarlana eta koordinazioa bilatuz. Bereziki landu beharko da koordinazioa Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Hizkuntza Berdintasunerako zuzendaritzarekin.

Auzoak bidegile eta bidelagun

Donostiako auzoak bidegile eta bidelagun izan dira aurreko Plan Orokorra aurrera eramateko garaian. Bakoitzak bere errealitatetik urratsak egin ditu euskararen erabileran aurrera egiteko. Plan honetan, Euskara Zerbitzuak modu koordinatuan lan egingo du eta auzoei Plan Orokorreko helburuak auzoetako errealitatera hedatzeko eta egokitzeko eginkizun zehatzak eskainiko zaizkie, denok norabide berean jarduteko eta aldi berean, tokian tokiko egoeraren arabera, bakoitza bere errealitatetik abiatuz eta ekarpenak eginez.

8. HELBURU ESTRATEGIKOAK: NONDIK NORAKOAK

Plan Orokor berri honen egitura antolatzerakoan Donostiako Udalaren kudeaketa eredua izan dugu oinarri baina baita Eusko Jaurlaritzaren proposamenari eutsiz, Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP) hizkuntza politikaren neurri-proposamenak ere.

Gauzak horrela, Plan Orokor honek 3 helburu estrategiko edo nagusi izango ditu, ESEPek proposatzen dituen hirurekin bat eginez, eta helburu operatiboen artean ESEPen zehar lerro gisa azaltzen direnak ere jaso dira, helburu estrategikoak lortzeko faktore garrantzitsu direlako: euskararen aldeko motibazioa eta euskararen zabalkundea dira horiek.



Donostiako Udalak osatutako Gobernu Programan 5. ardatz estrategikoa da euskarari dagokiona eta honela jaso da bertan:

"Erreferentziazko hiria euskararen, kulturaren, sorkuntzaren eta aniztasunaren sustapenean"

- **Helburu estrategikoak**: guztira 3 helburu dira estrategikoak eta honela definitu ditugu: Hiztun berriak sortzea eta lortzea, Gizarte-erabilera sustatzea eta Euskarazko sorkuntza bultzatzea.
- **Helburu operatiboak:** esparrukako helburuak edo neurriak jaso dira eta horiekin batera motibazio edo sentsibilizazioa eta zabalkundeari dagozkion helburuak ere bai, ESEP markoaren arabera zehar lerrokoak direnak.
- **Ekintzak:** helburuak lortzeko ekintzak edo programak dira.

8.1 ESPARRUKA HELBURUAK ETA EKINTZAK

HELBURU ESTRATEGIKOA: HIZTUN BERRIAK SORTZEA ETA LORTZEA

Helburu honek hiru esparru barne hartzen ditu: familia bidezko transmisioa, euskarazko irakaskuntza eta euskalduntze-alfabetatzea.

Hizkuntzaren geroratzea dago helburu honen oinarrian. Badirudi belaunaldi gazteetan bermatze bidean dagoela euskararen transmisioa aipatu hiru bideak erabiliz (familia, irakaskuntza eta euskalduntze-alfabetatzea). Bestalde, euskara etorkinengana hurbiltzea ezinbestekoa izango da haien integraziorako ez ezik euskara beste erabilera esparruetara irits dadin.

Donostiako Plan Orokorraren kasuan honako esparruak landuko dira: familia transmisioa, irakaskuntza, euskalduntze-alfabetatzea eta bereziki etorkinei edo etorri berriei begirako estrategiak. Esparru bakoitzari lotutako erronkak eta ideia gakoak jaso dira ondoko lerroetan:

1. FAMILIA TRANSMISIOA

Familiengana iristeko lanean jarraitu behar da, estrategia eta bide berriak erabiliz. Familia zentzu zabalean ulertu behar da: gurasoak, haurrak, aitona-amonak, eta familiaren zaintzan parte hartzen duten bestelako pertsonak ere bai. Kide guztien arteko interakzioak aztertuko ditugu bide berri horiek proposatzeko garaian.

Ziklo berri honetan indarra jarriko da bereziki etorri berriengana iristeko. Hori dela-eta Kultur aniztasuneko sailarekin batera etorkinen elkarteetara hurbiltzea izango da erronka handietako bat. Haien beharrak ezagutzearekin batera, elkarlana sustatuko da, eta herritar guztientzat egiten den eskaintza ezagutarazi eta egokitzen saiatuko gara, baita jarduera lerro berriak irekitzen ere.

HELBURU ESTRATEGIKOA: HIZTUN BERRIAK SORTZEA ETA LORTZEA	
1. Esparrua: Familia transmisioa	
Helburu operatiboa	**Ekintzak**
1.1 Familiak sentsibilizatzea (bereziki familia etorkinak) euskararen ezagutzak eta erabilerak haurren garapenean izango duen garrantziaz.	1.1.1 Gurasoei zuzendutako sentsibilizazio ekintzak eta formazioa antolatu. 1.1.2 Guraso etorri berriei zuzendutako mezuak. 1.1.3 Euskararen transmisioan funtsezko papera duen kultur transmisioarekin lotutako produktuak, jolasak eta abar landu eta eskaini.
1.2 Kultur aniztasuneko sailarekin eta eragileekin elkarlanean aritzea familia etorri berriak euskararen eta euskal mundura gerturatzeko.	1.2.1 Etorri berriei harrera nola egin aztertu eta landu. 1.2.2 Elkarlanerako taldea eratu. 1.2.3 Zabalkunderako bideak identifikatu eta komunikazio ekintzak egin. 1.2.4 Familiei hizkuntzan eta bertako kulturan aurreneko urratsak egiteko tresnak eskaini.

2. IRAKASKUNTZA

Euskararen ezagutza handiena duen adin tartea izanik, nerabe eta gazteengana iristea ezinbestekoa da eta sentsibilizazio ekintza garrantzitsuak egin dira aurreko Plan Orokorrean; oinarrizko soziolinguistika kontzeptuez jabetzeko egin diren ekimenak ondo balioetsi dira eta ildo hori sakontzen jarraitzea egoki ikusten da. Sektoreko eragileekin elkarlana indartzea beharrezkoa

da, beraz, eta lanean jarraitu behar da gazteen hizkuntza gaitasuna hobetzeko baliabideak eskainiz hezkuntza sistemak eta ikastetxeek egiten duten lanaren osagarri.

Irakaskuntza arautua Udalaren eskumenetatik at geratzen bada ere, ikastetxeekin elkarlana bideratzea funtsezkoa da, gazteengana iristeko bide eraginkorrena baita. Ikastetxearen eremuan gainera, gizartearen zati direnez gero, eskolak eskaintzeaz gain, ekimen asko bideratzen dira, eta elkarlanean aritzeko aukera zabalak daude.

Haur eta gazte etorri berrien lerroari arreta berezia eskainiko zaio, bai sentsibilizazioaren ikuspegitik, baita hizkuntza ikasteko tresna egokiak eskaintzearen ikuspegitik ere.

HELBURU ESTRATEGIKOA: HIZTUN BERRIAK SORTZEA ETA LORTZEA	
2. Esparrua: Irakaskuntza	
Helburu operatiboa	**Ekintzak**
2.1 Irakaskuntzaren baitan, hezkuntza arautuaren eremuan ikastetxeekin elkarlanean arituz, osagarri izan daitezkeen jarduerak eskaintzea motibazioa sustatu eta erabilera areagotzeko.	2.1.1 Gazteen artean ahozkotasuna lantzeko ekintzak (10-12 urte). 2.1.2 Sentsibilizazioan eragiteko ekintzak. 2.1.3 Eskolak arnasgune bilakatzeko ekintzak. 2.1.4 Euskarazko kultur sormena eta kontsumoa sustatzeko ekintzak. 2.1.5 Oinarrizko soziolinguistika-jakintza eskaintzeko ekintzak. 2.1.6 Euskarazko teknologia berriak ezagutarazteko eta erabiltzeko ekintzak.
2.2 Irakaskuntzaren eremuaren baitan, hezkuntza arautuaz kanpoko jarduerak eskaintzea gaitasuna hobetu, motibazioa sustatu eta erabilera areagotzeko.	2.2.1 Jolasaren eta aisialdiaren bitartez euskara gaitasuna hobetzeko eta erabilera areagotzeko ekintzak 2.2.2 Euskara erabiliz gazteen arteko harremanak sustatzeko ekintzak 2.2.3 Eskolaz kanpoko jardueretako begirale eta hezitzaileentzako formazioa
2.3 Gazteen (nagusiki, etorri berrien) euskara gaitasuna hobetzeko baliabideak jartzea.	2.3.1 Errefortzu eskolak 16 urtetik beherako gazteentzat. 2.3.2 Kultur aniztasuneko sailarekin eta eragileekin beharrak detektatu eta egitasmoak diseinatu. 2.3.3 Komunikazioa landu.

3. EUSKALDUNTZE-ALFABETATZEA

Euskara ikasteko baliabideak eskaintzen eta ikasleentzat diru laguntzak ematen jarraitzea esparru honetako helburu garrantzitsuenetako bat da. Gauzak horrela, B2 maila lortu arte euskara ikastea doakoa izateari eutsiko zaio, HABErekin eta eskumena duten beste erakundeekin bat.

Bestalde, xede bereziko ikastaroak, batez ere laburrak eta funtzio jakinetarako direnak sustatuko ditu Udalak, gurasoentzako, aitona-amonentzako, ostalarientzako edo merkatarientzako, besteak beste. Garrantzia berezia emango zaie oinarrizko ulermen mailara iristeko ikastaroei eta baita Aisa ikastaroak eskaintzeari ere.

Helburu horietan aurrera egiteko, Udalak jar ditzakeen baliabide eta bitartekoez gain, estrategikoa da Donostiako euskaltegiekiko elkarlana.

HELBURU ESTRATEGIKOA: HIZTUN BERRIAK SORTZEA ETA LORTZEA	
3. Esparrua: Euskalduntze-alfabetatzea	
Helburu operatiboa	**Ekintzak**
3.1 Donostiar helduak euskalduntzeko baliabideak ematea.	3.1.1 Eskumena duten eragileekin euskara ikasteko finantzaketa sistema egokia eratu. 3.1.2 Pertsona-talde eta funtzio jakinetara zuzenduta, xede bereziko ikastaroak antolatu. 3.1.3 Berariazko materiala sortzeko laguntzak 3.1.4 Euskara ikastera bideratutako komunikazio ekintzak. 3.1.5 Euskaltegiekin elkarlana jorratzen jarraitu.
3.2 Ahozko erabilera sustatzeko programak sustatzea.	3.2.1 Ahozko erabilera sustatzeko ekintzak antolatu eta lagundu.

HELBURU ESTRATEGIKOA: GIZARTE-ERABILERA SUSTATZEA

Euskararen jabekuntza ez ezik, familia eta eskolaren inguruan dauden jarduerak ondo zaindu behar dira hizkuntzaren ikuspegitik: kultura, aisia, kirola, teknologia, lan mundua, administrazioa, e.a. Erabiliz zorrozten da hizkuntza eta euskara gaztelania bezain baliozkoa egitea da eguneroko erronka. Horregatik, berariaz zaindu behar da herritarrei eskaintzen zaizkien zerbitzu guztiak bi hizkuntzetan emateko gaitasuna egotea.

4. ADMINISTRAZIOA

Administrazio Publikoak herritarrak beraiek aukeratutako hizkuntzan artatzeko betebeharra du. Hori hala izateko eta koherentziaz jokatzeko, herritarrekiko zerbitzua hauek aukeratzen duten hizkuntzan izan dadin bermatzeaz gain, ohiko lan-hizkuntza, nagusiki, euskara izatea da datozen urteetako helburua, bereziki euskarazko ataletan. Hori da Donostiako Udalean Euskararen Erabilera Normalizatzeko 6. Plangintzaren (2018-2022) helburu nagusia.

Une honetan, Donostiako Udalak baldintza egokiak ditu helburu hori betetzeko, izan ere, langileen %76,36k egiaztatua du lanpostuari dagokion hizkuntza eskakizuna eta %8,97k dagokiona baino bat gutxiago egiaztatu du (horien artean %42k 2 HE edo 3 HE egiaztatuta dute). Ordezkari politikoen artean ere gero eta gehiago dira euskara dakitenak; agintaldi honetako udalbatza osatzen dutenen %70ek daki euskara.

Udalak herritarrei zuzendutako jarduera eta zerbitzuetan bi hizkuntzen erabilera bermatzeko modurik eraginkorrena da lan-hizkuntza nagusia, modu natural eta erosoan, euskara izatea. Horrela lortuko baita benetako administrazio elebiduna. Horregatik, euskara normalizatzeko 2022 urtera bitarteko 6. plangintzak dituen ardatzetatik %80 lan hizkuntzari dagozkio, hau da, udalaren lan jarduerari erreparatu zaio (beste herri administrazioekiko eta enpresekiko harremana, lan tresnak, kudeaketa, bilakaera...) eta %20 zerbitzu hizkuntzari. Azken honi, zerbitzu hizkuntzari, dagokionez, bulegoetako jendaurreko arreta zuzena ia osotasunean bermatuta baldin badago ere, espazio publikoen erabileran hutsuneak sumatzen dira, batez ere zerbitzua udalak kontratatutako hirugarrenek ematen dutenean. Hauetan eragiteko sistema eraginkor baten beharra dago eta horretan eragingo da. Zentzu honetan, hizkuntza politikaren zeharkako izaera Udaleko departamentu guztiek barneratuta edukitzea ezinbestekoa da.

Sentsibilizazio lan handia egin beharra dago udal barruan ikusarazteko euskara zehar lerroa dela eta udalaren jarduera-eremu guztietan duela eragina. Horretarako udaleko arduradunen gidaritza eta eredugarritasuna ezinbestekoak dira.

HELBURU ESTRATEGIKOA: GIZARTE-ERABILERA SUSTATZEA	
4. Esparrua: Administrazioa	
Helburu operatiboa	**Ekintzak**
4.1 Erakundearen irudian eta jendaurreko guneetan jarrera proaktiboa erakustea, herritarrei euskara erabiltzera gonbita egiteko.	4.1.1 Errotulazio eta ikus-entzunezkoetan euskararen erabilera ziurtatzeko ekintzak. 4.1.2 Marketin, publizitate eta jendaurreko ekitaldietan euskararen erabilera bermatzeko ekintzak. 4.1.3 Ingurune digitalean (webgune eta sare sozialetan) euskararen erabilera bermatzeko ekintzak.

HELBURU ESTRATEGIKOA: GIZARTE-ERABILERA SUSTATZEA	
4. Esparrua: Administrazioa	
4.2 Herritarrei zuzendutako zerbitzua. 4.3 tan euskararen erabilera indartzea, euskaraz egiteko hautua egin duen herritarra euskaraz artatua izan dadin.	4.3.1 Herritarrekiko idatzizko komunikazioetan euskararen erabilera bermatzeko ekintzak. 4.3.2 Herritarrekiko ahozko komunikazioetan euskararen erabilera bermatzeko ekintzak.
4.4 Barne komunikazioan eta lan tresnetan euskara ere ohikotasunez erabiltzea.	4.4.1 Lanari lotutako hizkuntza paisaian (bulegoko materiala, papertegia…) euskararen erabilera bermatzeko ekintzak. 4.4.2 Idatzizko barne komunikazioetan euskararen erabilera bermatzeko ekintzak 4.4.3 Ahozko barne komunikazioetan euskararen erabilera bermatzeko ekintzak. 4.4.4 Euskarri informatikoak euskaraz ere egoteko eta horien erabilera sustatzeko ekintzak.
4.5 Pertsonen kudeaketan eta prestakuntzan euskararen erabilera indartzea.	4.5.1 Giza baliabideen kudeaketan euskararen erabilera areagotzeko ekintzak. 4.5.2 Laneko prestakuntzan euskarazko eskaintza areagotzeko ekintzak.
4.6 Kanpoko erakundeekiko harremanetan euskararen erabilera areagotzea.	4.6.1 Herri Administrazioekiko harremanetan euskara hutsezkoak sustatzeko ekintzak. 4.6.2 Erakunde pribatuekiko (finantza entitateak…) harremanetan euskararen erabilera areagotzeko ekintzak
4.7 Euskararen kudeaketa aurreratua bermatzea.	4.7.1 Hizkuntzen kudeaketa langileen kudeaketan txertatzeko ekintzak 4.7.2 Hizkuntzen kudeaketa erakundearen kudeaketa orokorrean txertatzeko ekintzak. 4.7.3 Hizkuntzen kudeaketa herritarrekiko harremanen kudeaketan eta zerbitzuen garapen kudeaketan (administrazio kontratu, diru laguntza...) integratzeko ekintzak.

Oharra: Ekintza horien artean sartzen dira, besteak beste, helburu operatibo bakoitzari lotutako hizkuntza jarraibideen gaineko aholkularitza, hizkuntza baliabideak eta laguntzak eskaintzea (idatzizko testuen zuzenketa eta itzulpen

zerbitzua, aldibereko itzulpen zerbitzua, hiztegi eta itzultzaile automatikoak, hizkuntza- eta soziolinguistika-prestakuntza nahiz sentsibilizazioa...)

5. ARLO SOZIOEKONOMIKOA: Merkataritza, Ostalaritza,Turismoa

Zerbitzuen sektoreak eta turismoak Donostiako sektore handiena osatzen dute. 2020ko lehen hilabeteotan jasaten ari garen osasun larrialdiaren eraginez, baina, sektore hauek duten eta izango duten krisialdi ekonomikoa izugarria izango dela aurreikusten da. Hemendik aurrerako bizimodu eta ohitura aldaketek ere eragin zuzena izango dute bi sektore hauetan. Horrek ez du esan nahi, hala ere, hizkuntzaren normalizazioan sektore estrategikoak ez direnik. Administrazioak ikuspegi horretatik lan egin beharko du egoera berrietara egokitutako zerbitzuak eta laguntzak eskainiz.

Beraz, Euskara Zerbitzua, 179 / 2019 Dekretuak dioenari jarraituz, saiatuko da euskararen gizarte-erabilera udalari dagozkion esparruetan normalizatzen. Era berean, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Hizkuntza Eskubideei buruzko 123/2008 dekretuari jarraituz, kontsumitzaileei eta erabiltzaileei aitortutako hizkuntza eskubideak progresiboki bermatzera bideratutako ekimenak bultzatuko ditu. Ildo honetatik, Eusko Jaurlaritzak 2020-2023 epealdirako diseinatu duen planean definitutako helburuen lorpena bultzatzen saiatuko da Euskara Zerbitzua ere: hizkuntza paisaia eta ingurune digitala, zerbitzu hizkuntza, konpetentzia komunikatiboa, gizartearen aktibazioa eta lan hizkuntza.

Plangintza honetarako helburu nagusietako bat beharko luke, beraz, establezimenduek euskarari balio erantsia ematea lortzea eta, kontsumitzaileen hizkuntza eskubideak bermatzeko bidean, Donostiako ekonomia suspertzen duen sektorea eredu izatea.

Gauzak horrela, Udaleko beste atal batzuekin elkarlana bilatuko da, Sustapenarekin, besteak beste, abian jar daitezkeen proiektuetan euskararen erabilera bultzatzeko eta baita kultur aniztasuneko sail eta eragileekin ere, etorri berri askok lan egiten duten sektoreak baitira. Era berean, eta kontuan izanda turismoak hirian duen eragina, Donostian izan dezakeen hizkuntza-inpaktua ikertuko da eta Turismo Sailarekin turistek euskararen berri izan dezaten ekimenak bideratuko dira.

HELBURU ESTRATEGIKOA: GIZARTE-ERABILERA SUSTATZEA	
5. Esparrua: Arlo sozioekonomikoa, Merkataritza, ostalaritza, turismoa	
Helburu operatiboa	**Ekintzak**
5.1 Merkataritzan eta ostalaritzan lan egiten duten eragileen gaitasuna indartzea.	5.1.1 Euskara ikasteko berariazko metodologiak landu eta sortzeko ekintzak. 5.1.2 Berariazko ikastaroak antolatzeko eta dauden dirulaguntzen berri emateko ekintzak. 5.1.3 Eragileekiko zuzeneko komunikazioa bideratzeko eta sentsibilizazioa lantzeko ekintzak.
5.2 Establezimenduetako hizkuntza paisaia euskalduntzea.	5.2.1 Hizkuntza paisaia euskalduntzeko dirulaguntzak eman. 5.2.2 Informazioa eta komunikazioa jorratzeko ekintzak.
5.3 Euskararen erabilera sustatzea bezeroen hizkuntza hautuak errespetatzeko.	5.3.1 Erabilera helburu duten eta indarrean dauden kanpainak inplementatzen jarraitu. 5.3.2 Euskararen erabilera zerbitzuaren balio erantsiarekin lotzeko balio duten ekintzak. 5.3.3 Eragileekiko zuzeneko komunikazioa bideratu eta sentsibilizazioa lantzeko ekintzak.
5.4 Donostia Sustapenarekin elkarlana abiatzea abian dituzten proiektuetan euskara txertatzeko.	5.4.1 Proiektu desberdinak aztertu eta hizkuntza irizpideen txertatzea nola egin erabaki. 5.4.2 Donostia Sustapenak bideratzen dituen proiektuak euskaraz egon daitezen bermatu.
5.5 Turista eta bisitariei erakustea Donostiak duen ezaugarri nabarmenetako bat euskara dela.	5.5.1 Donostia Turismorekin elkarlanean proiektuak definitu eta bideratu.
5.6 Auzoetako batzordeekin koordinatzea.	5.6.1 Udalak egiten dituen kanpainen berri eman. 5.6.2 Lekuan-lekuko beharrak aztertu eta indarrean dauden egitasmoak horretara egokitu.

6. AISIALDIA ETA KIROLA

Datozen urteei begira, Euskara Zerbitzuak aisialdi ekintzak antolatzea baino areago, Udaleko gainerako sailekin elkarlanean (Gazteria, Donostia Festak, Donostia Kirola...) hiriko aisialdi eskaintzan eragiteko beharra ikusten da. Elkarlanerako bide berriak aurkitzea ezinbestekoa izango da, baita aisialdian eragiteko modu/estrategia berriak lantzea ere. Aisialdiko eragile pribatuen jardunean eta eskaintzan eragitea ildo estrategikoa izango da.

Euskara Zerbitzuaren jarduna bereziki bi helbururi lotua ikusten da: aisialdiko eragileen jardunetan eragitea dagoeneko hirian dagoen eskaintza zabalean euskarazkoa areagotzeko, sustapen lana eginez, baliabideak eskainiz, jarraipena eginez... Era berean, arreta berezia jarriko da etorri berriek aisialdiko euskarazko eskaintzan parte hartu ahal izateko beharrezkoak diren lanketa, neurri eta baliabideetan.

Kirol esparruan ere hausnarketa bera egin da. Donostia Kirolarekin elkarlan estuagoa bideratu beharko da egun dagoen eskaintzan euskarazkoa areagotzeko neurriak hartzeko. Era berean, kirol elkarte eta klubekin elkarlanean aritzeko aliantzak egin behar dira, eta , hizkuntza ohituretan modu eraginkorrean eragiteko, abian diren esperientzietatik abiatuz, esku hartzeko moduak finkatu eta elkarte eta klub gehienetara zabaltzea litzateke erronka.

Hori guztia lortzeko, bai aisialdian eta bai kirolean, bi estrategia garrantzitsu aurreikusten dira: auzoetako plan integralen bitartez eragitea eta udal sailetako jarduera bateratua landu eta adostea.

HELBURU ESTRATEGIKOA: GIZARTE-ERABILERA SUSTATZEA	
6. Esparrua: aisialdia eta kirola	
Helburu operatiboa	**Ekintza**
6.1 Hamasei urte azpiko haur eta gazteentzako kirol jardueretan euskararen presentzia eta erabilera sustatzea.	6.1.1 Hiriko kirol klubetan euskararen presentzia eta erabilera sustatzeko ekintzak. 6.1.2 Eskola Kirolean entrenatzaileen gaitasuna bermatzeko neurriak. 6.1.3 Eskola Kirolean euskararen presentzia eta erabilera sustatzeko ekintzak.
6.2 Aisialdian, bereziki udalekuetan eta haur zein gaztetxoentzako aisialdi jardueretan, euskararen erabilera sustatzea.	6.2.1 Euskararen presentzia eta erabilera areagotzeko udalekuetako arduradunak sentsibilizatzeko ekintzak. 6.2.2 Haur eta gazteen aisialdi-eskaintza nagusia euskaraz izateko irizpideak finkatu eta adostu.

HELBURU ESTRATEGIKOA: GIZARTE-ERABILERA SUSTATZEA	
6. Esparrua: aisialdia eta kirola	
Helburu operatiboa	**Ekintza**
6.3 Aisialdiko euskarazko eskaintzan etorri berriek ere parte hartzeko neurriak hartzea.	6.3.1 Dagoen euskarazko eskaintza aztertu eta aldaketak proposatzea.

HELBURU ESTRATEGIKOA: EUSKARAZKO SORKUNTZA BULTZATZEA

Euskarazko edukiak eta ereduak behar-beharrezkoak ditu euskal hiztunak, hala nola, hedabideak, argitaletxeak, zientzia arloko edukiak, e.a. Sorkuntza sustatu eta babesteko neurriak jasoko ditu Plan Orokorrak eta kontsumoa indartzea ere bai. Zuzentasunaz gain, komunikagarritasuna eta adierazkortasuna bilatuko dira, gazteen erako hizkerara egokituz eta bestelako hiztun berrien beharretara moldatuz.

Interesgarria izan daiteke ezagutza eta berrikuntza arloan, unibertsitateetan eta zentro teknologikoetan, euskarazko sormena bultzatzea, eta gazte euskaldunek ezagutza horiek euskaraz agertzeko aukerak sustatzea, dibulgazio mailan, betiere.

7. KULTURGINTZA

Hirian dagoen kultur eskaintzan euskarazkoa indartzea eta eskaintza honekiko eskaera areagotzea da helburua esparru honetan. Donostian eskaintza zabala da. Indarrak jarriko dira eskaintza horren berri ematen eta publiko desberdinengana iristeko estrategiak diseinatzen. Donostia Kulturarekin batera lan egingo du Euskara Zerbitzuak.

HELBURU ESTRATEGIKOA: EUSKARAZKO SORKUNTZA BULTZATZEA	
7. Esparrua: Kulturgintza	
Helburu operatiboa	**Ekintzak**
7.1 Euskarazko sormena bultzatzea kultura eta zientzia arloan eragile desberdinekin elkarlanean.	7.1.1 Donostia Kulturarekin elkarlanean jarraituz, 7.1.2 Kultura alorrean, gazteen artean bereziki, euskarazko sormena sustatzeko ekintzak. 7.1.3 Ezagutza sektoreko eragileekin elkarlanean zientzia sorkuntzan euskararen erabilera sustatzeko ekintzak.

7.2 Euskarazko kultur kontsumoa indartzea.	7.2.1 Donostia Kulturarekin eta beste eragileekin elkarlanean, Hiriko euskarazko kultur eskaintza indartzeko ekintzak. 7.2.2 Haurrei eta gazteei zuzendutako euskarazko kultur ekoizpenak lehenetsi. 7.2.3 Euskarazko kultur ekoizpena kontsumitzeko sustapen ekintzak.

8. HEDABIDEAK

Hedabideek euskararen normalizazioan duten funtzioa erabakigarria da eta euskal gizartearen kohesiorako funtsezkoak dira. Era guztietako komunikabideek, bai betiko prentsa idatziak eta ikus-entzunezkoek, zein gaur egungo komunikabide eta sare digitalek, berebiziko eragina dute gure bizimoduan.

Azken hogeita hamabost urtean euskarak 300.000 hiztunetik gora irabazi ditu. Gaur egun, gutxi gorabehera, 1.000.000 pertsona euskaraz irakurtzeko eta irratia edo telebista euskaraz ikusi eta entzuteko gai dira. Donostian, 82.000 pertsona inguru dira. Era berean, urte horietan zehar, hedabideen munduan euskarazko produktu berri asko agertu eta garatu da (tokikoak, nazio mailakoak, prentsa idatzia digitala, ikus-entzunezkoa...). Hala ere, produktu hauen kontsumitzaile kopurua ez da kontsumitzaile potentzialen neurrian igo.

Erreferentziazko hedabide lehiakor eta pluralak behar ditugu eta horretarako lankidetza mota berriak aztertzea ezinbestekoa da, ikuspuntu pribatua bai baina publikoa ere izango dutena. Bide hori arakatzea ezinbestekoa izango da datozen urteetan.

Euskarazko hedabideen garapen iraunkorra ahalbidetuko duten neurriak hartzen jarraitzea beharrezkoa da baina sakoneko hausnarketaren beharrari helduz aldi berean.

HELBURU ESTRATEGIKOA: EUSKARAZKO SORKUNTZA BULTZATZEA	
8. Esparrua: Hedabideak	
Helburu operatiboa	**Ekintzak**
8.1 Euskarazko hedabideen garapen iraunkorra ahalbidetzeko neurriak hartzea.	8.1.1 Euskarazko tokiko hedabideen garapen iraunkorrari buruzko hausnarketa bultzatu. 8.1.2 Euskarazko tokiko hedabideak diruz lagundu. 8.1.3 Euskarazko hedabideak kontsumitzeko eta prestigioa emateko sustapen ekintzak. 8.1.4 Gazteentzako berariazko hedabideak eta komunikazio sareak kontsumitzeko sustapen ekintzak.

9. CORPUS-PLANGINTZA

Esparru honi dagokionez Donostiako Udalak lanean jarraituko du Euskaltzaindiarekin elkarlanean.

Itzulpen Atalaren eta Udal barrurako hizkuntza normalizazio atalaren bitartez, Udalak ekoizten duenaren kalitatea zainduko da . Era berean, eta helburu berarekin, hiriko sektore desberdinetara zuzenduta, itzulpen-zuzenketa zerbitzua herritarren eskura egongo da eta zerbitzua ezagutzera emateko ekintzak egingo dira.

HELBURU ESTRATEGIKOA: EUSKARAZKO SORKUNTZA BULTZATZEA	
9. Esparrua: Corpus plangintza	
Helburu operatiboa	**Ekintzak**
9.1 Toponimia eguneratu, osatu, ofizialdu eta zabaltzea.	9.1.1 Hizkuntza paisaia zaintzea, leku berriei izena jartzeko orduan edota jarrita dauden izena hobetzeko aholkularitza eskaini.
9.2 Euskararen erabilera publikoaren kalitatea zaintzea.	9.1.2 Udalak ekoizten duenaren kalitatea bermatu. 9.1.3 Udalak eragile desberdinei eskaintzen dien itzulpen/zuzenketa zerbitzuaren erabilera sustatzeko ekintzak.
9.3 Bertako hizkera ikertzea eta azaleratzea.	9.1.4 Ahotsak egitasmoa zabaltzeko ekintzak.

10. INFORMAZIO ETA KOMUNIKAZIO TEKNOLOGIAK

Euskarak azken urteetan Informazio eta Komunikazio Teknologien alorrean eta interneten aurrerapauso nabarmenak egin dituen arren, ezinbestekoa da eremu honetan ere euskarak lekua egiten jarraitzea. Euskararen osasun digitala, beste hainbat hizkuntzekin alderatuta, ona den arren, aldaketak abiadura handian ematen dira arlo honetan eta etengabeko egokitzea ezinbestekoa da.

Interneten euskarazko edukiak areagotzeko ekimenak beharrezkoak dira, bereziki ikus-entzunezko alorrean eta gazteei zuzendutakoetan. Euskarazko tresna teknologikoen beharra ere antzematen da sarritan, baina horrekin batera, euskarazko IKTen ikusgarritasuna areagotzeko bideak lantzea ezinbestekoa da.

Donostiako Udalak ikuspegi zabalarekin jokatu beharko du, IKTen eremuan, elkarlana bilatuz, eta euskararentzat estrategikoak izan daitezkeen egitasmoak sustatuz. Era berean, Donostia, euskararen hiria den heinean, dibulgaziorako antolatzen diren jarduerak, (kongresu, jardunaldi, hitzaldi eta abar) hirian sustatzen eta herritarren eskura jartzen ahaleginduko da.

HELBURU ESTRATEGIKOA: EUSKARAZKO SORKUNTZA BULTZATZEA	
10. Esparrua: Informazio eta komunikazio teknologiak	
Helburu operatiboa	**Ekintzak**
10.1 Euskara eta teknologia elkartzeko helburua duten ekimenak laguntzea.	10.1.1 IKTak eta euskarari buruzko jardunaldiak diruz lagundu. 10.1.2 Interneten euskarazko edukiak sustatzeko ekintzak. 10.1.3 Era guztietako jardueretan euskarazko teknologia berriak bermatzeko ekintzak.

11. SENTSIBILIZAZIOA

Euskararen ezagutza eta erabilera areagotzeko bidean nahitaezkoa da euskararen aldeko sentsibilizazioa eta motibazioa lantzea. Euskara ikasteko eta erabiltzeko motibazioa era askotakoa izan daiteke: afektiboa, pragmatikoa, identitateari lotua... batzuetan zein besteetan sakontzea gakoa da berreskuratze prozesuan, erabilera esparruak irabaziz aurrera egiteko.

Donostiako Udala eragile aktiboa izango da hiriz gaindiko sentsibilizazio eta motibazio ekintzak (Euskaraldia, Euskararen Nazioarteko Eguna, Korrika eta abar) Donostian sustatzen eta zabaltzen.

Era berean, udalerri mailan, euskararen garrantzia eta balioa gizarteratzeko hiriaren zein auzoen ezaugarriak ezagutu eta kontuan hartzea funtsezkoa izango da. Xede taldeak (gazteak, etorri berriak, familiak, eta abar) ere aintzat hartu beharko dira, bakoitzari dagokion argudioak eman eta euskarara erakartzeko estrategiak diseinatzerakoan.

Elkarlanaren bidea jorratuko du Udalak, aliantzak ehunduz eta kooperazioa landuz, era askotako eragile eta erakunderekin, Donostia euskaldunagoa izan dadin, Donostia, euskararen hiria izan dadin.

Donostiarrak euskarara hurbiltzeko mezu eta estrategia egokiak landuko ditu Plan Orokor honek. Gizartea askotarikoa da eta askotariko mezuak beharko ditugu hartzaile desberdinak inplikatzeko. Beharrak ere askotarikoak dira, baina funtsean plan honek bi helburu ditu: euskara dakienari, erabiltzeko, sortzeko baliabideak eskaintzea eta euskara ez dakienari, euskarara gerturatzeko,

ulertzeko bada ere, edo euskaldun oso bihurtu arte ikasteko moduak eskaintzea. Bi helburu nagusi horiek lortzeko, Donostiako Udalak komunikazio estrategiak diseinatu eta martxan jarriko ditu.

HELBURU ESTRATEGIKOA: EUSKARAZKO SORKUNTZA BULTZATZEA	
11. Esparrua: Sentsibilizazioa	
Helburu operatiboa	**Ekintzak**
11.1 Euskararen irudi positiboa eta marka zabaltzea.	11.1.1 Euskara eta bere erabilera sustatzeko sentsibilizazio egitasmoak /ekintzak. 11.1.2 Euskararen balioa gizarteratzeko ekintzak. 11.1.3 Euskararen egoera aztertzeko ikerketak.

9. PLANAREN JARRAIPENA

Euskara zeharkako gaia izanik Udaleko departamentuek euren ohiko kudeaketan txertatzea erronka nagusietako bat izango da hurrengo urteetan. Hori horrela, Plan Orokor honetan jasotzen diren helburuen jarraipenerako egitura propioa badago ere, departamentu bakoitzak berari dagozkion helburuen ardura hartuko du eta jarraipena egingo du. Egiteko horretan Udaleko sailek Euskara Zerbitzua bidelagun izango dute.

Honela definitzen dugu zeharkakotasuna:

"Politika-prozesuak antolatzea (berrantolatzea), hobetzea, garatzea eta ebaluatzea, xedea izanik politika-neurriak hartzen dituzten eragile guztiek euskararen normalizazioaren ikuspegia politika guztietan txertatzea, maila eta etapa guztietan".

Euskararen erabilera helburu, ezinbestekoa da ikuspegi integralaz lan egitea eta proposatzen diren programa eta ekimenetan euskara zehar lerroa izatea. Zeharkakotasunaren ikuspegiaren bidez bermatuko da Planak arlo guztietan eragitea.

Plana abian jartzeko zeharkakotasuna ondorengo aldagai horiek kontuan hartuz aplikatuko dugu:

- Donostiak izan dituen eta izaten ari den aldaketak hartuko ditugu kontuan. Aldagai soziodemografikoak eta soziolinguistikoak.
- Udaleko beste sail edo zerbitzuen planak: esparruetako planak, merkataritza, kirol arloa, turismoa eta jatorri anitzeko biztanleriari buruzkoak lantzeko, adibidez. Udalaren zerbitzuen parte hartze integrala landuko da

Era berean, Udal zuzendaritzetako Hizkuntza ofizialen erabilerarako batzordeak ere baliatuko dira Plan Orokor honen jarraipena egiten laguntzeko, batik bat hizkuntza ofizialen erabilerarako jarraibideak aplikatzea eta betetzeko bidean jartzea izango da batzorde hauen egitekoa. Udal zuzendaritza eta erakunde autonomoez gai, Sozietate eta Enpresa Erakunde publikoek ere izango dute zeregin hau hizkuntz irizpideen betekizunean.

- Horrez gain, hiriko eragile sozialak ere Plan Orokorraren jarraipenean parte hartzera gonbidatu nahi ditugu.

Euskararen Kontseilu Sektoriala izango da horretarako organo naturala, bere egiteko nagusia Donostian euskararen normalizazioan aurrera egiteko gaiak landu, proposamenak egin, planifikatu eta horien jarraipena egitea da izanik. Kontseilu Sektorial honen baitan sortutako lantaldeek ere izango dute jarraipena egiteko ardura (Kirol lantaldea, Ostalaritza eta Merkataritza lantaldea) eta baita epe laburrean eratzea aurreikusten den Kultur aniztasuneko lantaldeak ere.

- Auzoetako euskara batzordeak ere Plan Orokorraren jarraipena egiteko beste funtsezko hanka izango dira, bakoitza bere auzoaren egoera eta errealitatetik abiatuta.

Plan Orokorraren aplikazio eta garapenerako, urtean urteko kudeaketa planak egingo dira 2020-2024 aldian. Horrela, bada, Plan Orokorraren beraren eta urtez urteko kudeaketa planen jarraipena eta ebaluazioa egingo du Udalak.

Euskara Zerbitzua izango da Plan Orokor honen garapenaren kudeaketaz eta egokitasun teknikoaz arduratuko dena. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak Plan Estrategikoen jarraipen eta ebaluaziorako eskaintzen dituen irizpenak eta tresnak baliatuko dira.

9.1 ADIERAZLE PANELA

Ondorengo taulan jarraipenerako adierazle nagusi batzuk jaso dira Planaren norabide nagusia erakutsi dezaketenak eta hiru helburu estrategikoei lotutakoak: hiztun berriak sortzea eta lortzea edo jabekuntza, gizarte erabilera eta euskarazko sorkuntza eta kontsumoa edo elikadura. Plan Orokorreko adierazle orokor hauek urtez urteko kudeaketa planetan zehaztuko diren ekintzen jarraipenerako finkatuko diren adierazleekin osatuko dira.

HELBURUA: HIZTUN BERRIAK SORTZEA-LORTZEA		
ADIERAZLE ESTRATEGIKOAK	**ABIAPUNTUA**	**HELBURUA**
Euskararen ezagutza(%)		
Euskararen ulermena (%)		
Euskara ikasten ari direnak (%)		
B2 maila lortu dutenak(%)		
HELBURUA: GIZARTE-ERABILERA		
ADIERAZLE ESTRATEGIKOAK	**ABIAPUNTUA**	**HELBURUA**
Euskararen erabilera (%)		
Erabilera aisian eta kirolean haur eta gazteen artean		
Etxeko erabilera		
Herritarrekiko harremanak udal administrazioan		
Herritarrak udal administrazioarekiko harremanetako erabilera		
Establezimenduetan lortutako atxikimenduak		
Euskaraldiaren emaitzak (parte hartzea)		

HELBURUA: EUSKARAZKO SORKUNTZA ETA KONTSUMOA		
ADIERAZLE ESTRATEGIKOAK	**ABIAPUNTUA**	**HELBURUA**
Antolatutako lehiaketa/sariketetan parte hartzea (%)		
Euskarazko hedabideen irismena		
Euskarazko ekitaldietako parte hartzea		

PLANAREN KUDEAKETA	
Planaren ebaluazioa	
Aliatuek egindako ebaluazioa	
Erabiltzaileek egindako ebaluazioa	